



1A4195

ANTONIO ZAVALA, S. I.



A L Z A ' K O
B E R T S O L A B I
Z A A B B A K



ALZA'KO BERTSOLARI ZAARRAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

76

ANTONIO ZAVALA, S. I.

ALZA'KO BERTSOLARI ZAARRAK

COLECCION AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612

Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Colegio de S. Ignacio, Ategorrieta.—San Sebastián

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "

AUSPOA LIBURUTEGIA
1968

ARKIBIDEA

D. L. S. S. 448/68

Itzaurrea	9
JOXE GARMENDIA (1885-1924)	
Joxe Garmendia Zabala	13
“Ni jaio nintzan...”	26
“Korrika-apustura bat...”	30
Alza'ko Parroko Jaunari Bertso Berriyak	37
Bertso Berriyak 1912'gn. Agoztuaren ama- miyan Bizkaia'n pasatako desgraziyari	44
Bertso Berriak (Europa'ko Gerrari)	51
Emakumeai	65
Afrika'ko gerrari	67
Kati txiki bati jarritako bertsuak	68
ANDRES ARRIETA (1856-1930)	
Andres Arrieta Alkiza	77
Ardo-kontrabandua	79
Bei-jatea	80
Txapel aundi bati	82
Errañari	84
Sega-apostua	90
Bertso Berriak Marrus'ek Paulinori jarriak	98
PATXIKO ARZAK (1859-1928)	
Patxiko Arzak Arana	105
Bertso Berriak aita zar batek jarriak	107
“Alza'ko erriyan...”	114
XATURDINO ERAUSKIN (1874-1950)	
Saturnino Erauskin	119
ARTZAI-TXIKIYA	
Artzai-Txikiya	129

ITZAURREA

Liburu ontan, Alza'ko lengo bertsolari zaarren bizitza ta bertsoak bildu ditugu; guzira, bost bertsolari:

Arrues'ko Joxe Garmendia; Marrus'ko Andres Arrieta; Amoreder edo Amueder'ko Patxiko Arzak; Gazteluene'ko Xaturdino Erauskin; ta Txurdiñene'n bizi izan zan Artzai-Txikiya.


Oietaz gañera, irakurleak dakiana, Alza'ko Gazteluene'n pasa zituan bere azke-neko urteak. Txirritak, eta bertso-paper ederrik asko bertatik jarri ta zabaldu zituan Euskalerra guzira.

Alza'ko erria, bere inguruko erriak bezela, bertsolari-lurra izana degu, beraz. Orren probarik ederrena, liburu au degu.

*Bañan Alza'k ez dio oraindik lengo ja-
torriari ukatu, ta gaur egunean ere bada
erri onetan bertsolari onik.*

*Auen bertsoak beste baterako utzirik,
irakurleari onako liburu au eskeintzen
diogu gaurko ontan.*

JOXE GARMENDIA
(1885-1924)



JOSE GARMENDIA ZABALA
(1885-1924)

Jose Garmendia Zabala, Arrues base-
rrian jaio zan, 1885'gn. urteko Martxua-
ren 25'an, goizeko ordubietan. Bataioan,
Joxe Manuel jarri zioten, bañan bere
denbora guzian, Manuel alde bat utzi-
rik, Joxe esan zioten. Guk ere ala esan-
go diogu.

Arrues, Alza'ko partean dago, bañan
Donostia'ko Ategorrieta ta Intxaurren
ballaretatik alderago gelditzen da.

Gurasoak, Jose Inazio ta Manuela izan
zitan, biak Donostia'koak. Aitari, Ina-
zio bakarrik esaten zioten guziak. Aita-
ren aldeko aiton-amonak: Domingo Gar-
mendia ta Maria Josefa Bitoria, biak do-
nostiarrak; amaren aldekoak: Esteban
Zabala, Astigarraga'koa, ta Josefa Inazia
Zugasti, Usurbil'koa. (1)

(1) Alza'ko 7'gn. bataio-liburuan, 244'gn. orrian.

Bertsolari onetzaz emen esango diran guziak, beraren alarguna dan Eujenia Arrieta'ri, illoba Migel Garmendia'ri, ta illoba txikia Patxi Lazkano'ri zor dizkiet. Eskerrik asko!

Migel Garmendia, Joxeren anai baten semea da, ta Arrues baserrian bertan jaioa. Orregatik, osaba esposatu zan artean, berarekin bizi izan zan. Patxi Lazkano, berriz, Joxeren anai baten illoba da, onen andrearen partetik. Patxi au jaio ta bizi dan baserria, Otxoki deritzana, Arrues ondo-ondoan dago.

Auek esan didatenez, Joxeren familian bost senide ezagutu zituzten: zarrena, Pedro, Frantzia'ra desertore joan ta an bizi ta illa dana; Mikaela; Miguel; Joxe, gure bertsolaria; ta Migel Mari. Etxe artan jaiera aundia zioten, beraz, San Migel Aingeruari.

Joxe mutil koxkorretan asi omen zan bertsoan. Bertso zarrak ikasi ta kantari ari omen zan beti. Beiak larrera bota ta bera bertso kantatzen. Oso eztarri ona omen zuan, ta inguru guztik nabaitzen zuten. Orregatik, Udarregi jarri zioten izengoitia.

Egun batez, amalau bat urte zituala, aitak etxearen izenean bialduta, *malo-*

bran ari omen zan. Alza'n *malobra* esaten zaionari, bestetan auzo-lana esaten diote. Ta lanean ari zala, lagunak onela asi zitzaizkan:

—I, Udarregi, bota zak bertsoa!

Joxek etzuan orduan bota, bañan biamonean buruan pentsatuta ekarri zuan, ta berriro bertso-eske asi zitzaizkionean, onela kantatu zien:

Anjel eta Bixente,
Buztiña bestia,
mozkortu arte tabernatik
ateratz'eztia;
ikasten pasa dute
juan dan astia,
alare geiago da
Udarrei gaztia!

Gero zeatzago adieraziko danez, Joxe Altunaene'ko marmol-fabrikari egiten zuan lana. Egunez aritzen zan. Orregatik, bertan bazkaltzen zuan, ta bere illoba Migel joaten zitzaion bazkariarekin. Babarrun gorria ta aragia patatarekin-edo izaten zuan. Tripa bete beintzat.

Apalondoan, guziak katillu aundi bana esne artzen zuten Arrues'en. Katillu oiek, barrendik zuriak ta kanpotik buztin-kolorekoak izaten ziran.

Garai artan, amairu lagun biltzen ziran maiean. Ta guziak batetik artzen zuten jakia; platerik etzan artean usatzen.

Joxek, gauero, oiera baño len, oñak ur beroarekin garbitzen zituan. Su ondoan tupi aundi bat egoten zan beti ur beroarekin.

Udaran, apalondoan, kanpora ateratzen ziran, gau-giro ederra zegonean, preskura artzera. Aurak garo gañean etzanda egoten ziran. Gau batez oso illargi ederra zegoan, da Joxeren illoba Joxe Marik onela galdetu zion:

—Osaba, zenbat bide dago emendik illargira?

Joxek orduan zerbait erantzun zion, bañan gero, gai onen gañean, zortzi bat bertso jarri zituan. Bertso oiek galduta daude gaur, Joxeren illoba Migelek eman dizkigun puntu auek izan ezik:

Mutil koxkor batek galde
egin ziran lenguan
emendik illargira
zenbat bide dagan;
i baño bizkorragorik ezpalego,
ez litzake gerra asko
izango munduan.

Joxek asko irakurtzen zuan; tabernarako gizona etzan, bañan irakurtzeko bai. Bi edo iru periodiku pasatzen zituan. Oso memoria ona zuan, ta guzia buruan gelditzen zitzaion.

Aotik aora bertso kantatzeko etzuan balio; jartzeko bai ordea.

Jarri zituan bertso-sail guzietatik, bat bakarra inprentatu zuan: *Gerra Europea*'ri jarri ziona. Beste guziak, kuaderno edo album batean idatzita gordetzen zituan.

Il zanean, ordea, alargunak erre egin zituan aren kuaderno ta paperak. Orain onela esan digu berak:

—Ez nituan erre egin bear, bañan erre egin nituan! Eztakit zer ematen zidan orduan aren paperak ikusteak!

Penagarria da, bañan ez arritzekoa. Izan ere, alako eriotza izan zuan Joxe gizagoak!

Liburu ontan jarri ditugun bertsoak, len esan bezela Joxeren illoba diran Migel Garmendia ta Patxi Lazkano'ri zor dizkiegu. Jaunari eskerrak, osabaren eskuz-ida-tzi batzuk etxean gordeta zeuzkaten, aren oroipengarritzat.

Bañan beste bertso asko ta asko galdua da, zoritxarrez. Galdutako jarri-aldi

oietako bat, illargiari jarritakoa izango da. Beste bat, berriz, Alza'ko Zagategi baserriko idiari jarria. Idi onek, Erko omen zuan izena, ta iges egin zuan perra-tokitik, Egia ballaratik. Donostia'raño etorri zan; *Avenida*'ren barrena pasiatu zan; ango guardia ta ostalari bati izu-aldi ederra eman zien; denda bateko kristala autsi zuan adarrekin; ta, itz batean esateko, komeri ederrak jarri zituan, etxeko morroiak arrapatu zuan arte.

Ta Joxek, bertsoak jarri zizkion. Bertso oiek dakizkianik, ez degu iñon arkitu. Puntu auek, Txirritaren illoba dan Alza'ko Gazteluene'ko Jose Ramon Erauskin'ek eman dizkigu:

Atoz gaxua onera, Erko,
ta ezpâzu bertan iltzia nai
aguro salta bearko.

Txirrita ta Joxek alkar ezagutzen zuten, ura zarxeagoa bazan ere. Txirritak bein baño geiagotan aitortu zuan Joxeren doaia:

—Ori gu baño geiago dek bertso jar-tzen!

Joxe, Alza'ko Garbera-goi'ko alaba zan Eujenia Arrieta Jauregi'rekin esposatu

zan, 1923'gn. urteko Ilbeltzaren 10'an. Joxek, 37 urte zituan, beraz.

Andrearen aita ere, Andres, bertsolaria zan. Aren bertso batzuk, bildu al izan ditugun guziak, liburu ontan arkituko ditu irakurleak.

Orregatik, andreak zenbait bertso bazekian noski buruz, ta askotan, sukalde-lanetan-edo ari zala, bertso kantari asten zan. Ola somatzen zuan bezin laister, senarrak esaten zion:

—Nola esan dezu? Kanta zazu berriz!

Ta ezagutzen etzuan bertsoa bazan, paporean apuntatzen zuan.

Egia ballaran jarri ziran bizi izaten, Eguzki-alde deritzaion etxean. Alabatxo bat izan zuten, Modesta, aita ezagutu ezin izan zuan alaba, ain zuzen. Gero esango degunez, aitaren eriotza, onek bi illabete ta erdi zituala gertatu baitzan.

Joxe, oso gizon ona omen zan; banakabanaka ta nekez arkitzen diran oietako bat.

Iñoren kontrako itzik ez omen zuan sekula ateratzen. Broma ta umorea jarri bai; ori gustatzen zitzaion. Bañan itz txarrik iñork ez omen zion ezagutu.

Alargunak onela esan digu:

—Eltzea geza bazegoan, etzan bera ke-
jatuko; nik probatu artean, etzan gatzar-
ren faltik aitatuko.

Oso elizkoia omen zan. Esposatu baño
lenxeago, onela esan omen zion bateonba-
tek:

—Joxe, eliza gustatuko zaiona artu bear-
ko dezu ba?

Ta Joxek:

—Eliza gustatzen etzaion andre bearrik
ez det!

Ez omen zion andreari gauza tristerik
sekula aitatzen. Onela esaten zuan:

—Etxean bakarrik dagoan emakumeari,
etzaio desgustorik eman bear, bakarrik
dagoala pentsamentu asko etortzen zaio
burura ta...

Itz batean esateko, izan zuan errema-
tea iñola merezi etzuan gizona zan. Erre-
mate ori zer-nolatan izan zan, orain esan-
go degu.

Len esan degun bezela, Altunaenea'n lan
egiten zuan. Lenengo, makinan aritzen
zan; gero enkargatu jarri zuten. Bañan
olako kargurik eman ez bazioten, obe zu-
kean...

Lendabiziko ez-bearra, Alza'ra joan zan
batean gertatu zitzaion. Artean ezkongai

zegoan. Illundu ondoren bueltan zetorre-
la, Buztin-txulo baserriko ar-eskalleretan,
—orain ez dago an eskallerarik—, bateon-
batek bazterretik atera ta brusa dana la-
banarekin pasa zion. Etzion gorputzik
ikutu, bañan eskapada latza egin zuan!
Kolpea tira ta iges egin zuan arek, ta Jo-
xek etzuan ezagutu illunpeetan.

Andregaiari etzion ezer esan; koñatari
bai ordea. Ta onek ura urrena topo egin
zuanean, onela esan zion:

—Ola ta ola pasa da; ez al dizu ezer
esan?

Orduan jakin zuan andregaiak pasadi-
zuaren berri. Ta ori ola gelditu zan.

Altunaenea'n baziran lau langille, beti
apustuan zebiltzanak eta lanerako batere
gogorik etzutenak. Oiek ziran Potxolo aiz-
kolaria ta bere lagunak.

Oien jokaera auxe zan: apustu zanean,
jai; astelenean, jai; asteartean, jai; ta as-
teazkenean lanera etorri. Iru edo lau aste-
tan ori egin zuten. Ta nagusiak onela esan
zion Joxeri, enkargatuari alegia:

—Berriz ola egiten dutenean, bial itza-
zu, etortzean, neregana!

Ala, nagusiagana bialdu zituan, ta onek
lanetik despatxatu zituan. Aiek, ordea, Jo-

xeren kulpa egin zuten, arek esango ziola ta au ta ura.

Ala, beren artean zotz egin omen zuten zeñek ilko zuan. Lenengo, biri tokatu zitzaien; gero biak bata bestearekin egin zuten, ta Joxeren jaiotetxearen auzoan morroi izana zan bati tokatu zitzaion.

Urteberri egunarekin, illunabarrean, Joxe, Egia ballarako Ttonttorre zeritzaion tabernara joan zan. Emen bertso kantari ari omen zan; ain zuzen, berak etxeko katu bati jarritako bertsoak kantari. Bertso oiek liburu ontan arkituko ditu irakurleak.

Ta ortan lasai asko ari zala, zotza tokatu zitzaiona tabernaren atean azaldu zan, ta onela esan zion:

—Joxe, atoz faborez onera!

Joxe kanpora abiatu zan, ta atea pasa zuan bezin laister, arek sabeletik labana sartu zion. Berealaxe jaso zuten, bañan esteak ebaki ta kanpora atereak zituan. Manteo'ko ospitalera eramán zuten, ta illaren bostean il zan.

Labana sartu ziona, muga ia pasian arrapatu zuten. Kartzelan sei edo zortzi bat urte pasa zituan. Andik atera ta bi edo iru illabete egin zituan bizirik. Bula-

rretik-edo gaizkituta atera zala esan zuten. Dana dala, bereala il zan.

Besteak etzituzten arrapatu; Ameriketa-ra-edo alde egin zuten.

Joxeren eriotza nola izan zan, bere alar-gunak txeetasun guziekin kontatu digu. Ona emen beraren itzak:

«Il zan eguneko bazkalondoan, ordu bietan, bateonbatek gure etxera etorri ta onela esan zidan:

—Senarra bizirik ikusi nai badezu, zuaz aguro!

Alaba bi illabete ta erdikoa bainuan, aldameneko etxekoandrearengana joan nintzan, ta onela esan nion:

—Aur oni erreparatu iozu, faborez!

Aren senarrak onela esan zidan:

—Zuk etzenduan joan bear, Eujeni!

Erantzun nion:

—Nik? Nik bai joan bear dedala, ta orixe bai joango naizela!

Ospitalera iritxi ta kuartuan sartu nintzanean, esan nion:

—Joxe, ezagutzen al nazu?

—Ezagutuko etzaitut ba? Orra neri egin didatena!

—Bai, zuri egin dizutena, baña eztago

erremeiorik! Orain, ori egin dizunari, barkatu bear diozu!

—Geiago balitz ere barkatua dago!

Gero onela esan zidan:

—Lan pixka bat egin ta beste ura ez eman iñori!

—Beste ura ez esan; esan gure aurra! Sei utzi bazizkidazun ere, danak aterako nituan, bañan bakarra aixa aterako det!

Ori esanda, ixilik gelditu zan momentu batean. Gero esan zuan:

—Begira: ni orain iltzera noa, eta senideak izan adiskide!

—Bai, ta gu ere ilko gera; gu ere laister or gera zure atzetik!

Ta urrena esan zidan:

—Azkenekoa izango da ta ekatzu musu bat!

Eman nion, ta etzan gozoa izan musu ura! Bañan gogor egin nion nere buruari ta etzitzaidan negarrik saltatu! Orduan goiak bea jotzen zuala iduritzen zitzaidan!

Andik pixka batera gora begira jarri zan, ta zurrunga asi zitzaion. Orduan aterra egin nintzan. Andik ordu-laurden batera il zan.»

Eriotz ori, 1924'gn. urtean, Ilbeltzaren bostean izan zan. Joxek 38 urte zituan.

Geroztik berrogei ta lau urte pasa dira. Ala ere, Joxeren alargunak, agur esatera koan, onela esan zidan bat-batetan:

—Mesede bat eskatu bear dizut!

—Nai dezuna!

—Ez ekarri neri libururik!

—Zer ba?

—Dana berritzea litzake ta ez ekarri neri libururik!

«NI JAIO NINTZAN...»

1/ Ni jaio nitzan milla zortzireun
larogei eta bostian,
nork ote daki nere biziya'au
geroztik zenbat kosti'an?
egiya garbi esaten dakit
orla izketan astian,
orra nik zenbat urte dauzkadan
noiz ditudan da noiz'tian.

2/ Martxoko illaren oi ta bostian (1)
diyote sortu nitzala,
izugarriya etzan izango
orduko nere itzala;
amasei urte kunplitu ziran
ama neria il zala,
anparo gabe gelditu nitzan
txiki-txikiya nitzala.

(1) Paperean: *ogei*.

3/ Bedatzi urte nitubenanian
asi ninduten eskolan,
nere orduko bizi-modua
etzait aztuko sekulan:
sardin erria taluarekin
egun guztiko sakelan...
umiak ola ibilli baño
obe du egon kartzelan.

4/ Bizi-modua nola deran gaur
garbi adierazten det:
ofiziyorik ez daukat baño
bastante irabazten det;
janian ez det batere gulik,
gorputza merke jazten det,
etxian gutxi entregatuta
tabernan asko uzten det. (2)

5/ Tabernarako biziyo txar au
ondo sartu zan nigana,
aitor dezagun gaurko gaztiak
geienak ala gerana;
erretiria desgarayian,
iñoiz geiegi erana,
bestela oso sanua naiz ta
auxen gaitz txarra derana!

(2) *uzten du*, *jazten du* ta abar ezin esan; bere burua sartu bear; orregatik esaten du *uzten det*, *jazten det*; oiek orregatik daude postura orretan esanak. Bera etzan orrelakoa. Ala esan didate ao batez Joxe ezagutu zuten guziak. Au bera esan di-teke sail ontako beste bertso askorengatik ere.

6/ Iñola ezin kunplitu diyot
gorputzak daukan gustua,
sortzen diranak eman eskas,(sic)
ez det neurri justua;
ala ere ez konsideratzen,
ain daukat buru nastua,
premirik gabe mala maneran
nik dabilkidan gastua.

7/ Igande-goiza allegatzian
afaitatuaz mezetâ,
tabernik iñon zabalik badô
lenbiziko an presenta;
pakettillo bat ziarro artu
fumatzallia naiz eta,
bi txiki-erdi eran ezkerro
akabo nere pezeta.

8/ Eguartetikan jeneralian
tabernan gera tokatzen,
lagunak alkar billatutzian
segiran ardo jokatzan;
antxen begiyak iya aterian
tontuenari pegatzen,
lanerakuan nere bururik
ez da oinbeste nekatzen. (3)

(2) Etzan joku-zalea. Konpromisua ez bazan,
etzan asiko.

9/ Ordu biyetan goiza dala-ta
beranduxiô etxera,
bazkaririkan ote daguan
azkar beiratu eltzera;
baldin koñatak esaten badit
«Len apuratu etzera?»,
arri're azkar arrazoi txarra
belarriyaren ertzera. (3)

10/ Bazkaldu eta lagunetara
berriz e al dan lenena... (4)

(3) Joxe, arrazoi txarrik etzuan gizona omen zan;
pazientzi aundiko gizona; zer esaten zuan ondo ze-
kiana; asarretzen etzana.

(4) Amargarren bertso au, onela asi ta utzia da-
go. Jarri-aldi onek luzeagoa bear zuan, beraz; ba-
ñan, zoritxarrez, etzuan aurrera jarraitu, guk arki-
tu degun tokian beintzat.

Toki au, egillearen beraren eskuz-idatzi bat izan
da, bere illoba Migel Garmendia'ren eskutik izan
deguna.

KORRIKA-APUSTURA

Korrika-apustu onen korrikalariak, onako auek izan ziran:

Bata, zarra, Joakin Ibarburu, 75 urtekoa; Uba'ko ermitatik laister dagoan Plazentzi baserrikoa zalako, Joakin Plaxentxi esaten zioten. Alza'ko ayuntamentuan konzejal izan zan urte askoan.

Bestea, gaztea, 23 urtekoa; Sanson edo Xantxon zuan izengoitia. Gizajo bat zan.

Apustua zuten Otxoki baserria ta Ametz-gaña bitartean: zarra, goitik beera, Ametz-gaña'tik Otxoki'ra; gaztea, beetik gora, Otxoki'tik Ametz-gaña'ra.

Trabesa, duro bat zuten. Xantxoni bestek osatu zioten duro ori. Oietako bat, Joxe Garmendia izan zan. Pezeta jarri zuan onek.

Joxek Ametz-gaña'n egon bear zuan, Xantxon noiz irixten zan, Otxoki base-


rrian zeuden erloju-zaleai pistola-tiro batez adierazteko. Bañan etzan tiro bearrik izan. Orra zergatik:

Abiatu ziran korrikalariak egiñalean, ta, alkarren parean irixtean, zarrak gazteari onela esan zion, geldi-arazita:

—Nora oa, aluki?

Ta gizajo ura, itz oiekin ikaratuta-edo, igo gabe gelditu zan. Ala, zarrak irabazi zuan apustua, ta Joxek pezeta galdu. Gero, bertsoak jarri zituan onek.

Garai artan, Otxoki taberna ta sagardotegia zan, ta jai-arratsaldeetan olako broma asko egiten zan. Umore-faltik etzan izaten. (1)



(1) Migel Garmendia ta Patxi Lazkano, Joxeren illobak. Doñua, Patxi Lazkano'k kantatu, magnetofonoz jaso ta Ambrosio Zatarain jaunak paperean idatzia.

-tsan; ma-ki-ña bat per-so-na i-kus-te-ra jua
n:se-ku-la-koi-s-ti-llu-a e-gun ar-tanan zan.

1/ Korrika-apustura bat
izan degu Alza'n,
orain nago penetan
metituba salsan;
makiña bat persona
ikustera jua zan,
sekulako istillua
egun artan an zan.

2/ Asi naizen kasuan
esango det dena,
Apirillaren biyan
artu degun tema;
ixilik egotiak
ematen dit pena
onra zabaldu gabe
aitona batena.

3/ Bostetako biltzeko
zuten itzegiña,
esandako orduba
etzan utsegiña;
Joakiñ izanik orren
gizon atsegiña,
pena det bere kontra
trabesa egiña.

4/ Pezeta bat zan trabes
nere interesa,
publikatzen asteko
gauza ezereza;
gizonak biartu nau
estu eta presa,
au egiya da, Joakin,
sinistatu beza.

5/ Irurogei ta amabost urtetan
dago iritxiya,
bestiak ogei ta iru,
zer diferentziya!
Gaztiak artu degu
esperientziya,
biba agure zarra,
Joakin Plazentziya!

6/ Ametz-gañian nitzan
testigu jarriya,
dretore ta guzi
Sansonen guardiya;
ain zan salerosua
Joakiñen abiya,
baziruriyen kabitik
zijuan erbiya.

7/ Tirua aditzian
zuten partiera,
Sanson Ametz-gañera,
Joakiñ andik bera;
ikusi degunian
orren allaera,
egundañoko danok
arrituak gera.

8/ Joakiñek zerbait esan
ziyola birian,
allegatu zanian
Sansonen parian;
beriala jarri zan
bildurrak aidian,
nik eztakit oiek zer
material dian.

9/ Apustura orretan
onelako lanik
ez nuen esperatzen
gertatuko zanik;
pezeta galdutziak
ez dit eman penik,
bañan bai gelditziak
iyo gabetanik.

10/ Sentimentuba badet
naizen arteraño,
Sanson juan eztalako
bere markaraño;
amak egiten gaitu
zenbait seme ñaño,
mozkortzian pizkorrago
tientuan baño!

11/ Sansonen apustura
gure kalterako,
eskarmentatu gaitu
beste baterako;
ezta kapaz geiago
lagun arterako,
orrekiñ gizonikan
ezta aterako.

- 12/ Beste direttore bat
 bagendun kuadrillan,
 Sanson au konsejatzan
 jaun ori zebillan;
 soziedade ortatik
 aurtengo Apirillan
 nik ezik eztu lanik
 jasotzen partillan.
- 13/ Biba aitona zarra,
 galtza ta gerriko,
 zure kontra ez gera
 geiago jarriko;
 panparroi jetxiya da
 salto eta brinko,
 Joakin Plazentzi ezta
 onezkero ilko.
- 14/ Orain ere bota du
 berriz desafiyo,
 bere buruagana
 guztiz dago fiyo;
 au josten dan lekutik
 arek biar iyo,
 probintziyatik bada
 etortzeko diyo. (2)

(2) Alza'ko Otxoki baserriko Patxi Lazkano'ren libreta batetik artuak.

Argia, 1931/V/24. Aldaketak: 3/5: aren; 5/1: Irurogei ta amabost; 6/1: Ametzigañan nitzan; 6/7: bazirudin; 7/4: ta Joakin bera; 7/6: arren allegera; 9/1: apostua orretan; ta 10'gn. bertsoa ez dakar.

(1911)

ALZA'KO PARROKO JAUNARI BERTSO BERRIYAK

Don Meliton Pagola, Alza'ko bikarioa izan zan urte askoan. Gero Zarautz'a joan zan, ta il berria da, urte askorekin noski. Oso izlari ona omen zan.

Joxek bertso auek paratu zizkion. Inprentatu nai omen zituan, bañan Don Meliton'ek, beretzat onra geiegi zala-ta, etzion utzi.

Joxeren illetan, proguan aurrena Don Meliton izan zan. (1)

Bertsoak, Joxeren eskuz-idatzietatik ditugu.

- 1/ Milla pasa ta bederatzireun
 amaikagarren urtian,
 Maiatz-illaren amalabian
 egun siñalamentian,
 sermoi eder bat adituba naiz
 Alzako erri partian,
 Don Melitonek itz egin digu
 egiya glaramentian,
 zer pusturetan bizi biagun
 munduan gauden artian.

(1) Migel Garmendia, Joxeren illoba.

2/ Argitasun bat eskatzen diyot,
Don Melitonek bezela,
Kontzeziyoko Ama Birjiñak
arren lagundu nazala;
badakit ondo Jesukristoren
munduko ama au zala,
pekatariyak salbatutzeko
orren biarra bazala,
ontan fedia firme eduki,
galduak gera bestela.

3/ Arratsaldeko labak aldian
zan kurpitura iyua,
gure aurrian egin nayian
bere esplikaziyua:
Nere kristabak, esaten zigun,
gaurko ebanjeliyua,
badakizute nola sendatu
animaren eriyua,
gaizki egiñak aitortutzia
orra erremeriyua.

4/ Don Melitonen deboziyua
laguntza eskaka Jesusi,
bere buruba ala tratatzen
ez det gizonik ikusi;
gazte eta zar, on eta gaizto,
granorik eztu berezi,
zer peligrotan bizi geraden
nai zigun adierazi,
lastima dala gure anima
entregatzia Judasi.

5/ Pekatariyak konbertitzeko
saiatu zaigu gogotik,
al dan lenena apartatzeko
diabruaren ondotik;
Jainkuak berak itz egin digu
Don Melitonen abotik,
esaten zigun denbora labur
juan biagula mundutik,
eztala iñor eskapatuko
eriyotzako ordutik.

6/ Gorroto txarrik baldin badegu
iñor elkarren artian,
pauso bat ere ez gero eman
projimuaren kaltian;
lastimatzeko moduan ziyon
begiyak malkoz betian:
Emen geranak ikusiko deu
gero egunen batian,
zuben kontua nik emen biat
Josafatera juatian.

7/ Guraso asko ikusten ditut
seme-alabak ezitzen,
bire gaizto ta eskola txarrak
erakutsiyaz azitzen;
esaten dute zail daguela
bestela emen bizitzen,
Jaungoikorikan eztala eta
Luzifer ondo serbitzen,
umiak orla edukatuta
ez dira gaizki gelditzen!

- 8/ Inbiri edo ikusi-eziñak
galtzera gatoz guziyak,
zartuta nola obr'onak egin
gaztetan gaizki aziyak?
Jaunaren deiak entzuten gaude
esker gabeko lasayak,
gai ontan fuerte itz egin digu
Alza'ko gure artzayak,
denbora dala saiatutzeko
bentzututzera etsayak.
- 9/ Saiatzen dana kunplitutzera
mundu ontako gustua,
iñola ezin izan liteke
arren anima justua;
libertadia gustatzen zaigu,
aiñ gaude jende gaiztua!
Don Melitonek ontan eman du
oso ordena estua:
Jaungoikoaren izen santuaz
ez egoteko aztua.
- 10/ Orren suplika lastimosuak
eztu izandu txantxarik,
esaten zigun ez artutzeko
bire gaiztoko martxarik;
eta arkitzen baldin bazaigu
pekatuaren mantxarik,
Jaungoikuari erregutzeko
biyotza goruntz altxarik,
nai eztubenak ez beza egin,
eztigu jarri portxarik.
- 11/ Zenbat alditan esaten zigun:
Ari zazute, gaztiak:
beti izutu Jaungoikuaren
agindu santak austiak;
zarrak peligro iguala dauka,
batek bezela bestiak,
kontu aundiyan pasa ditzagun
munduko egun tristiak,
ondoren txarrik eman eztezan
gure begiyen istiak.
- 12/ Blasfematzeko kostunbre txar au
gallendu zaigu naikua,
itz gaiztuakin ezer gutxitik
lurpetzen degu Jainkua;
jendiak eztu ontzat artu nai
Don Melitonen ojua,
obra onetan atzera guaz,
gaiztakeriyan pijua,
munduko gure despeditzia
negargarriya dijua.
- 13/ Etsai gaiztuak zabaldu dira
mundua engañatzera,
gaztetan jende zuzena zana
piyurritu da zartzera;
kristau giñanak biurtu gera
diabruaren antzera,
libertadia obia dala,
relijiyua atzera,
Jesukristoren dotriña santa
etzagun utzi galtzera.

14/ Nere kristabak, oroi gaitezen
ostegun santu arratsan,
oraziyuan Jesus zeguala
Jesemaniko baratzan;
bere Aitari eskatzen ziyon
libratutzeko al bazan,
bazekiyela gu salbatzeko
munduratua nola zan,
iltzera igual konforme zala
ola komeni ez bazan.

15/ Ontarako zan Jesukristoren
mundu ontako jaiskera,
pekatariyai salbaziyoko
biria erakustera;
guregantikan konformatu zan
gurutzari jostera,
bere odola eta gorputza
gu mantentzeko uztera,
andikan iru egunera
berriz piztu zan ostera.

16/ Andikan berrogei egunera (1)
bizirik juan zan zerura,
Aita Eternuak bere onduan
prestatu ziyon lekura;
eskuiko aldetik eseri zuben
guri begira mundura,
esker gabeko artaldiari
artzaia dagon modura,
gu juzgatzera etorriko da,
kristabak, au seguru da.

17/ Agur, Meliton, despeditzen naiz
esker aundiyak emanik,
bedorrentzako akordatuta
berandu samar berenik;
batere ez diyot txartzan artutzen
eman dizkigun ordenik,
baña batzubek kontra baditu,
ori zierto dakit nik,
mundu ontara etzan sortuko
danen gustoko gizonik.

18/ Prokuratzeke esaten zigun
maite izatia alkarren,
konsideratu gorroto txarrak
zer ondoria dakarren;
batak bestia ikusi eziñik
oso gabiltza nabarmen,
kostunbre txar au utzi biagu,
betiko ezkera emen,
gure Jainkuak mudatutzeko
graziya digula, amen.

(1) Eskuz idatziak *andik* dio. Onela neurrian
motx gelditzen dala, eta ustegabeko utsegiñen bat
izango dalakoan, *andikan* jarri degu.

(1912)

BERTSO BERRIYAK
MILLA TA BEDERATZI EUN
AMABIGARREN
AGOZTUAREN AMABIYAN
BIZKAYA'N PASATAKO DESGRAZIYARI

1912'gn. urteko galernaz bertso auek jarri zituan Jose Garmendia'k. Txirrita ta Fermin Imaz'ek ere jarri zituzten. Auspoa'ren 24'gn. alean arkituko ditu irakurleak; baita idatz-lantxo bat ere galerna onetzaz.

Bertso auek, Joxeren eskuz-idatzietatik artuak ditugu.

- 1/ Adiskide neriak,
dirate abisa
bertso berri batzubek
jarri al banitza;
saiatuko naizela
eman diyet itza,
kontatuko dizuet
istori bat gaitza,
itxasuan dabilzan
pobrien bizitza.

- 2/ Milla kunplitu eta
bederatzi egun
amabigarrengu au
zer tristia degun!
itxasuan galdu da
orrenbeste lagun,
orra aurrak aitik ez,
ta amak alargun,
famili oietara
beiratu dezagun.

- 3/ Agustuko illaren
amabigarrenak
edo egun orretan
izan zan galernak
ez ditu lasai utzi
zenbaiten barrenak,
endemas galdu diran
famili oienak,
lutuz jantzita gaude
euskaldun geienak.

- 4/ Bizkaiko lau erritan
dauzkaten negarrak,
Elantxoben, Lekeition,
ta Ondarruatarrak;
jakiña da Bermeon
a ze diadarrak,
elkar malkoz bustirik
amak eta aurrak,
ez zaizkate gelditu
allebiyo txarrak!

- 5/ Notizi tristi ori
 giñan adituak,
 egun amasei Bermeoko
 bazirala ituak;
 iru Ondarruar ta amasei
 Lekeitiyokuak,
 Elantxobetik zortzi,
 badira naikuak,
 denak gure anaiak
 Kantabriakuak.
- 6/ «Gero arte» esanda
 ziranian irten,
 bizirik bueltatzia
 esperoko zuten;
 ai au deskalabrua
 pasa dana aurten!
 ainbeste arrantzale
 ur azpira juaten,
 Jainkuak jakingo du (1)
 zer sufritu duten.
- 7/ Denborale txar artan
 zeuden esperantzan,
 pauso bat eman nai ta
 segurantzik etzan;
 alde samar zegona
 igariyan juan zan,
 gañerakuak antxen
 txalupa aien puntzan, (sic)
 lenbiziko portua
 abuskalo nun zan!
- 8/ Egun ta berroi t'iru
 omen dira palta,
 andik eskapatua
 bizi dana bat-ta; (2)
 au Daniel Eskurtza,
 gizon ona baita,
 milagro bat egin du
 Jaungoikuak naita,
 Lekeitiyokua da
 bost umeren aita.
- 9/ Eskurtzak egindako
 deglaraziyua,
 nik aditu diyotet
 gonbersaziyua:
 aiziak altxa zuben
 ernegaziyua,
 itxasuak egin du
 bere aziyua,
 negargarri galdu zan
 oien biziya.
- 10/ Aiek kuadrillan zortzi
 atera zirala,
 San Nikolas treñeran,
 bera patroï zala;
 aize-bolada batek,
 uste ez zutela,
 ontziya azpikoz gain
 jira ziyotela,
 ez da dudik trantzia
 pasako zutela.

(1) Eskus-idatziak *Jainkuak jakingo* dio.

(2) bat-ta = bat da.

11/ Zer tristia izango zan
orduko trantzia,
asko degu, kristabak,
pensatzen jartzia;
gogoratu zitzaien
bi egur lotzia,
ala moldatu zuten
beren gurutzia,
komeni baldin bazan
artxek salbatzia.

12/ Aguantatu omen zuten
orduen betian,
beste itxas-bolara
etorri artian;
treñeruari jota
urrengo kolpian
zortzietatikan bost
ondora batian,
ezkutatu omen ziran
betiko ur-pian.

13/ Beste bi galduta ere
etzeukan eskerrik,
ez bazuen bezela
anparo biarrik;
ojuka asi zala,
ordia alperrik,
bapore *Mamelena*'k
bulto bat igarrik,
artxek atera zuben
Eskurtza bakarrik.

14/ Emendik juañ ziralak
kalak egitera,
ikusita ta esan zuten
«Gizona ote'ra?»;
Donostiar leialak
digute atera,
baita ekarri ere
kaieko partera,
Amuene deritzan
ostatu batera.

15/ Partia zabaldu zan
Orkolaga'gandik:
«Itxas-giro gaxtua
bada gaur oraindik»
arrantzale pobriak
libratzeko andik;
ala desio zuben
al bazan iñondik,
baña sartu zitzaien
uste gabetandik.

16/ Arrantzalienen ditxa
da errukarriya,
nunbait saiatu biar
orra alderdiya;
maiz asarretzen zaie
itxaso aundiya,
oiek berriz ortikan
jan biar ogiya,
amaika miserable
galtzen dan tokiya.

17/ Baserritarra naiz ta
badet nik kupira,
esan gabe utziyak
kontu asko dira;
amazazpi bertsotan
nere despedira,
barkatu zaidazute
ondu ezpadira,
Alzako gazte batek
ateriak dira.

BERTSO BERRIAK

(EUROPA'KO GERRARI)

1/ Bertso berri batzuek
kantatzia legez
pentsatu det nerez,
nai izanagatikan
orain ezta errez;
zerbait itzegingo det
Europa'ko gerrez,
egoten bazerate
isillik faborez,
edo bestela esan
naizuten edo ez.

2/ Bi urte kunplituta
irugarrenian
ari diranian,
asmo auxe sartu da
nere barrenian;
lenbiziko tiruak
asi ziranian,
Uztako illaren ogei ta
zortzigarrenian,
Austria ta Servia
aurren-aurrenien.

2/ Orduan esaten zan:
«Komeni da gerra»,
idia ederra!
makiña bat lekutan
jarri du negarra;
batzuek illagatik
badagola aukera,
alakua seguru
ote dago bera?
arraiskuan gaudenak
ikaratzen gera.

4/ Gerra komeni bazan,
orra etorri da,
gogor ari dira
jendia bakandutzen
lautatikan bira;
zer dan ez dakitela
dadukaten ira,
ainbeste milloi gizon
alkarri begira
beste lanikan gabe
kargatu ta tira.

5/ Amalau naziyotan
badirade jonak
txarrak eta onak,
batak bestia iltzen
or dabiltza danak;
gerr'au luzerako da
oraindikan, jaunak,
asi errez egin zan,
bukatutzen lanak,
ez bazaizkate aitzen
bibere ta janak.

6/ Alemanak Austria'ri
nai ziyon lagundu,
pastela egin du,
len elkar bazekiten,
obrak ezagun du;
frantzesak obe zala
al bazan konpondu,
ez-bayian etziran
luzaro egondu:
gerra deklaratura
terrenuak kendu.

7/ Beñere ez naiz egon
ezer dudatua,
pensatzen au t'ua:
Alemana da oso
gaizki portatua;
zertan ukatu zuben
lengo kontratua?
or daduka Belgica
arras ondatua,
egin etzutelako
aien mandatua.

8/ Belgica'tik pasua
nai zuben Paris'a,
joateko arisa,
eman etzizoten da
aserre dabilta;
ango gobiernuak
ziyona abisa:
pakian utzitzeko
arri bere gisa;
damutu al zitzaion
Holanda'ko itza?

9/ Orra lau probintziya
ondatu Belgica'n
nai gabe gerrikan
merezi etzutenak
alako lanikan;
askok eztu aitatzen
aiek diranikan,
ez bajatziagatik
alemanarikan,
disimulatzen dute
baña alperrikan.

10/ Lieja eta Amberes,
Brabante ta Namur,
oiek jo zuten lur,
lengo oñian jartzen
ezta oso samur;
emen egiten zaio
gaiztuari agur,
ona kastigatzeko
iñor ezta beldur,
askoren Jaungoikua
alemana da gaur.

11/ Bi milla berregun da
berroi ta bi etxe
ondatak antxe,
ala ere etziran
kontentu ortantxe;
iñork ez daki berriz
zenbat kristau-iltze,
gauza negargarriya
gertatu da auxe
laguntza bearko du
Belgica'k oraintxe.

12/ Batzuek lanerako
beste asko preso
alemanak jaso,
gorrotua ziyona
berriz il-erazo;
badira diyotenak
ondo dala oso,
ezaguera degunak
egiyogun kaso,
ango aur koitaruak
daude lastimoso.

13/ Naziyo pizkor ortan
sortu dituztenak
len etzituztenak:
aideko ta urpeko
armamentu onak;
«Laister egingo ditu
frantzesaren lanak,
—ala esaten zuten
lenbizitik danak—,
irabaziko dute
gerr'au alemanak!»

14/ Inbentorik onenak
Alemanikuak,
ez nolanaikuak,
urpeko submarino
eta aidekuak;
bazituzten kañoiak
berroi ta bikuak,
ejerzituak berriz
fama aundikuak...
kontra etorri zaizka
bere modukuak!

15/ Adelantu oiekin
orrenbeste lagun,
esaten zan ordun
ura detenitzeko
korajia nork dun;
jendia berriketan
etzan gutxi jardun:
«Martxuaren seirako
kendu baietz Verdun!»
Oraindik ezta sartu,
eztakigu zer dun!

16/ «Frantzesak kastigu au
zeukan bereziya,
ondo mereziya,
bera txarra dalako
ekarraraziya;
ango gobiernua
nola dan masoya...»
Orrekin bukatzen du
askok arrazoya,
an ere ona prankok
eman du biziya!

17/ Alemanak oraindik
ez daude etsiyak,
oien potentziyak
Jaungoikoak erabat
eskutik utziyak;
ondatzen ekin dute
urpetik ontziyak,
españolak naikuak
baditu autsiyak,
erreinu ontarako
a ze galantziyak!

18/ Mudantzak asi dira
irutara lautik,
gaur askoren autik
ezta beintzat aditzen
len añeko latik;
orain ez dute egin nai
frantzesaren paltik,
gaizki esan nayian
ingelesakgatik,
jokuan dabilzala
leku segurutik.

19/ Ingelesa nai zuten
iñozotzat utzi,
orrek zeñi eutsi?
gaizkirik esan gabe
askok ezin etsi;
jende ustela zala,
ejerzito gutxi,
egingo ziyotela
senper erakutsi...
saiatzen dira baña
ezin dute autsi!

20/ Neronek aditu det
gizon askogandik:
«Ingelesak lan dik,
mokadurik onena
alemanak jan dik!»
Milla metro batzuek
gora juanda andik
Londres'en bota arren
bonbak zepelindik,
ez dute irabazi
gerr'ori oraindik!

21/ Naziyoaz aundiarena
danetan Rusiya,
asko ikusiya,
ura engañatzeko
idia guziya;
ango gizon-taldia
ezta itxusiya,
lastima dan bezela,
gaizki ikasiya...
onezkero amaikak
eman du biziya!

22/ Aleman, Turkiatar,
Austria ta Hungria
eta Bulgaria,
aietatikan ere
baja ubaria;
gerr'au asi zanian
kontari jendia:
«Bi illabete barru
aspertuko dia!»
Bai salsa nai zutenak
juan izan balia!

23/ Gerr'ortan onezkero
zenbateko pilla
ote dute illa!
ez bi ta iru bakarrak,
makiña bat milla;
gaizki asten dan lana
bukatutzen zalla,
ezin juan omen dira
erituen billa...
nik desio detena
akaba dedilla!

* * *

Europa'ko gerraren bertso auek, ta bai
beste guziak ere, egunez nola lanean ari-
tzen baitzan, gaez idatziak dira. Artean
Arrues'en beintzat elektrikarik ez baitzan,
kandela bat piztuta aritu bear...

Inazia Lazkano zan Joxeren anai ba-
ten illoba, Arrues ondoan dagoan Otxo-
ki baserriko alaba, oso bertso-zalea.

Europa'ko gerraren bertsoak jarri zi-
tuanean, Inazi oni kopia bat ekarri zion
Joxek, bukaeran bertso au jarrita:

Gabaz lan ontan aritutzia
zeñen gauzaren tristi'an!
letra ederrak egiten ditut
begiyak lotan ixtian...
ez nuben uste aguantatzerik,
Inazi, orrenbestian,
ederkiyago jarriko'izkitzut
obek ondo ikastian.

* * *

Joxe Garmendia'k idatzi ta Otxoki'ko
Inazia Lazkano'ri eskeñitako kopia, ba-
serri ontan gorde zuten, ta, liburu au egi-
teko, esku artean izana degu. Berari ja-
rraitu diogu bertsoak emen ipintzeko.

Bertso auek, «Imp. Tamayo Herma-

nos» moldiztegian inprentatu ta zabaldu ziran. Bertso-paper ori, Alza'ko Gazte-luene'ko Jose Ramon Erauskin Lujanbio'gandik jaso degu.

Eskuz-idatzia ta bertso-papera berdin-berdin daude; obetoxeago eskuz-idatzia, bertso-paperak inprenta-utsegite batzuk ditu ta. Bañan utsegite oiek ez dute emen jartzerik merezi.

EMAKUMEAI

Onako bertso auek ere, Joxe Garmendia'k jarriak dira. Otxoki'ko Inazio Lazkano'k emanak ditugu. Bertso-sail luzea omen zan, bañan pare ontaz bakarrik oroitu da orain.

Emakumeen artean gona berri bat jarri omen zan modan: gerrian, extu-extua; ipurdi aldean, buelo aundikoa; ta bean, extua berriz ere.

Ona emen bertsoak:

- 1/ Bostetako mezara
dijuaz jaietan,
aste-egunian berriz
oyian seietan;
bestek eju eginda
jeki erdiyetan,
sukaldera sartzian
fuego erriyetan!

2/ Zeñek ederraguak
gona ta kamixa,
batek *color de rosa*
ta bestiak grixak;
gogoratzian parrez
nago nere gisa
nola makurtzen diran
egiteko pixa.

AFRIKA'KO GERRARI

Afrika'ko gerrari ere bertsoak jarri zizkan Jose Garmendia'k. Ain zuzen, anai bat an zuan. Bertso-sail luzea omen zan, bañan, zori txarrez, Alza'ko Otxoki baserriko Patxi Lazkano'k buruz zekian eta kopiatu diogun bertso au ez beste danak galdu egin dira:

Auxen da lana lorikan trankil
ezin egin arratsian,
ikaratuta esnaratzen naiz
anaiaz akordatzian;
moruak gerran fuerte
egiten omen dute
onian edo gaitzian...
arrazoi dute agindutzia
bakoitzak bere etxian!

KATU TXIKI BATI JARRITAKO BERTSUAK

Etxeko katua zan. Jaio zanean, bera izan ezik, katakume guziak il ziran; baita ama ere. Ta amarik gabe azita, oso katu kaxkarra atera zan. Plako-plako gelditu zan. Ikusteak ere pena ematen zuan; ain zan tristea. Beti goseak ia illean zebillen. Jateko abildaderik ere etzuan. Esnea artzen zuan, baña ura ere bear aña ez.

Arrues'ko sukaldeak leio bat zuan; leio ondoan maia egoten zan. Katua maietik leiora ateratzen zan, ta an eguterran egoten zan, eguzkitan. Eguzkia itzaldu ta preskatzen asten zanean, katua atzera su ondora etortzen zan. Oiek ziran egun guzian egiten zituan pausoak.

Grazia egiten zion Joxeri katu orrek, eta bertsoak jarri zizkion. (1)

(1) Migel Garmendia, Joxeren iloba. Doña ere, Migel onek kantatua degu, ta gero Ambrosio Zata-rain eta Juan Oñatibia jaunak paperean idatzia.

Bertsoak, Joxeren eskuz-idatzietatik artuak ditugu.

A-zi-en-da bat da-go gu-re e-txi-an sal-gai, as-
pal-di-txu-an na-go e - ros-tu-na-ren zai; mer-
-ke e-man-go diyo-t ba - lu-kei-ñork nai; ka-
-ta-ku-me txi-ki bat gus-ta - gar-ri-ya bai.

- 1/ Bertso berri batzuek nabil jarritzeko, nik dakitenarekin ez da arritzeko; iñork gogorik badu obek aditzeko, ikasi ta kantatzen gero aritzeko.

- 2/ Azienda bat dago
gure etxean salgai,
aspalditxuan nago
erostunaren zai;
merke emango diyot
baluke iñork nai,
katakume txiki bat,
gustagarriya bai.
- 3/ Garbi emango ditut
katu orren señak:
txiki-txikitan ditu
eztulak egiñak,
gizentzen saiatzen naiz
nere alegiñak,
*bañan persegitzen du
ijarako miñak.* (2)
- 4/
.....
.....
.....
.....
.....
udaberri aldera
pizkortuko al da! (3)

(2) *Cursivaz* dagoana, paperean ezin irakurri da, puskatua dagolako. Patxi Lazkano Joxeren illobak esanda jakin degu nola dan.

(3) Papera puskatua dago; bertso ontan, ta bes-tetan ere bai, puntoz jarri ditugunak, paperean ezin irakurri diran lerroak dira.

- 5/ Pensatzen egondu naiz
neregan lenguan,
xaguen batek bera
jango ote duan,
aiñ gauza arlotia
sortu zan munduan,
otzak pasia edo
ez dakit zer duan.
- 6/ Suaren ondotikan
irteten da bakan,
nonbait bere gustua
izaten du arkan;
begiyak itxututa
egoten da tranpan,
Kristok bestek ez daki
zer malezi dakan.
- 7/ Iñoiz ateratzen da
zerbaiten eskera,
edo ezurak biuiñ
dauzkan ikustera;
doi-doia iyotzen da
*leioko koskera,
eguzkia sartzian
surtara oster.* (4)

(4) Emen ere papera puskatua dago; *cursivaz* dagoana, Migel Garmendia Joxeren illobak osatua da.

8/ ez du ta
.....
.....
.....
bizkarra arrotuta
ematen du aize,
bai traidoria dala
Judas bezelaxe.

9/ Nik ez daukat orrekin
ze alibiyorik,
ez baldin badu uzten
daukan jenyorik;
ez diyot ekarri nai
betenariyorik,
zergatikan ez daukan
erremeriyorik.

10/ Ez det besterik biar
erneatutzeko,
koñatak esaten dit
enpleatutzeko;
baita nik kantak jarri
enteratutzeko,
artutzen dubenak ez
entreatutzeko.

11/ Azkar mugi liteke
iñork biar badu,
bestela udazkenak
akabatuko du;
len goatu nitzan da
orain daukat damu,
utsa zan sikiera
konpradiyan banu.

12/ Begira emateko (5)
ez litzake inportik,
pisatzen da entreduan
ez ibiltziatik;
tantiatua daukat
dala ontzaz betik,
bizirik pisata're
ez da beintzat batik.

13/ Desgrazirikan asko
neretzat izan da,
egiñalak eginda
gizendu ezinda;
plakueneko markan
askoz pasian da,
etxia aurreratzeke
au dek azienda!

(5) Begira emateko = tratua, azienda ikusiz ba-
karrik egiteko, pixura joan gabe alegia.

14/ Bizkarreko illiak
dabizki gozuak,
baña soildu zaizkiyo
anka ta besuak;
muturreko illiak
erre dizka suak,
oso planta ederra
ez dauka gaxuak.

15/ Orlako aziendik
gutxi gora-bera,
iñork egiten badu
nun dagon galdera,
tratuan oso errez
konponduko gera;
pozik emango diyot
eraman aldera. (6)

ANDRES ARRIETA
(1856-1930)

(6) Eraman aldera = debalde eramateko, etxetik
kentzeagatik badare.

ANDRES ARRIETA ALKIZA

Andres Arrieta Alkiza bertsolaria, Alza'n jaio zan, Marrus baserrian, 1856'garren urteko Azaroaren 10'an.

Gurasoak, «Marcial de Arrieta», ta «Feliciana de Alquiza» izan zituan; biak Alza'tarrak ziran.

Aitaren aldeko aiton-amonak: Jose Andres, ta «Magdalena de Arzac», biak Alza'tarrak; amaren aldekoak: Juan Baup-tista, Alza'tarra, ta «Josefa Ignacia de Gorostidi», Baliarrain'goa. (1)

Marrus baserrian jaioa zalako, Andres Marrus esaten zioten. Ta berak ere, Uz-kudun'eri paratu zizkion bertsoetan, onela jarri zuan: Bertso Berriak, Marrus'ek Paulino'ri jarriak.

Alza'ko Garbera-goi baserrira ezkondu zan. Emaztea, Maria Estefania Jauregi izan zuan. Famili ederra azi zuten. Da-

(1) Alza'ko 6'garren bataio-agiri-liburua, 294'garren orria.

kigun bezela, alaba bat, Eujeni, Joxe Garmendia bertsolariarekin ezkondu zan.

Andresek askotan kontatzen omen zuan, aur koxkorretan Xenpelar bertsolaria nola ezagutu zuan Alza'ko Mirazune deritzaion sagardotegian.

Gazte denboran, gerratean, karlistetan ibilli zan.

Jale ikaragarriak omen ziran, Andres ez-
ezik, Marrus'ko guziak ere bai. Bei ba-
tekin egin zutena, gero arkituko du ira-
kurleak. Andres, kilo bat angula aixa
jango zuan gizona omen zan. Izan ere,
alakoxea omen zan bera: aundia ta bi-
kaña.

Bertso jartzeari, berandu xamar ekin
omen zion, gazte denbora aspaldi alde-
giña zuala beintzat. Bañan, berandu asia-
gatik ere, bertso-sail batzuk jarri zituan.
Eskuratu izan ditugunak, emen arkituko
ditu irakurleak.

1930'garren urteko Martxuaren 27'an
il zan, Garbera-goi'en, gaueko bedera-
tzietan, 73 urterekin, eliz-agiriak dionez
*«a consecuencia de endocarditis, por
trastornos gastrointestinales»*. (2)

(2) Alza'ko 7'garren eriotz-agiri-liburua, 158'ga-
rren orria.

ARDO-KONTRABANDUA

Egun batez, Andres Donostia'tik Alza'-
ra ardo-kontrabandoarekin zijoan. Guar-
dak, ordea, bidean arrapatu zuan. Or-
duan Andresek guarda ori bultza ta lu-
rrera bota zuan. Orregatik kartzelan sar-
tu zuten. Ta kartzelan zegoala, bertsoak
jarri zituan. Bertso oiek galduak dira,
Migel Garmendia'k eman digun onako
au izan ezik:

Nongoa naizen esan biar det
iñork nai badu ikasi,
Alza'ko errian jaiua eta
kartzela onetan ni bizi
amar txiki ardorengatik;
orra zer dan adierazi;
pagatu ditut ederki asko
baldin banuen merezi!

BEI-JATEA

Alza'ko Artzaka baserrikoak, albaite-teroarekin aserre antzean ibilliak edo olako ixtilluren bat izanak ziran.

Ondoren, beiak, lanean ari ziralda, bata bestearekin borrokan asi ziran, ta batek koskatik erori ta lepa-ezurra autsi zuan.

Deitu zioten albaite-teroiari, ta onek, mengantzaz, bei arek *lipua* deritzaion gaitza zuala, ta zuloan sartu bear zala deklaratu zuan. Ta Artzaka'koak ala egin bear izan zuten.

Bañan Marrus'koak kontu guzia jakindu zuten, ta arratsean bei-para gurdia-ekin artu, beia zegoan tokiraño joan, zuloa idiki, beia atera, gurdian jarri ta etxera ekarri zuten. Ta ekin diote aragi jateari.

Bateonbat enteratu zan ordea, ta parte eman zien mikeleteai. Joan ziran auek

Marrus'era etxea errejistratzera, bañan ordurako Andres eta bere etxe-koak bazekiten bateonbat parte emana zala.

Andres, sasi-arotza edo aroztegian zerbait zekiana zan, ta barrika bati ondoa kendu zion; sartu zuten an bei geiena, kanpoan pixka bat utziaz, disimulatze-ko; jarri zuten ondoa atzera len bezela, baita barrika gurdia-ren gañean ere.

Ta mikeleteak etorri ta etxea errejistratzen asi ziran, uretara balijuaz bezela, bere gurdi aragiz betearekin. Mikeleteak, apropos utzia zegoan aragi-pixka arrapatu zuten, ta ura dana izango zalakoan, ostera zuloan sartu-arazi zuten, zotala gañetik boteaz.

Ta, ori eginda, andik aldegin zutenean, Marrus'koak gurdia atzera etxera ekarri, ta berriro aragi jateari ekin zioten. Gustora jan zitekean, noski, prezio ortan... (1)

Pasadizo onetzaz batenbatek bertsoak jarri omen zituan; bañan ez didate esan ez zer bertso ziran oiek, ez egillearen izenik, ez beste argibiderik.

(1) Patxi ta Inazio Lazkano, Otxoki, Alza.

TXAPEL AUNDI BATI

Alza'ko mutil gazte bat, Migel Yarza, Arjel baserrikoa, txapel izugarri aundi batekin ibiltzen zan. Egun batez, Otxoki'ko tabernan, onela esan zuan Andres Arrieta'k:

—Nik txapel orri jarriko nizkioke, ba, bertsoak!

Ta erantzun zioten:

—Aparia, jartzen badituzu!

—Jarriko ditut ba!

Ta jarri zituan. Lau bat bertso ziran. Migel Yarza'k berak bi eman dizkigu; beste biak aztu zaizkio:

Mutil gazte bat kuriosua,
buruan txapel ta guzi,
eguzkiak berotu arren
nekez juango da igesi;
nere denboran aundiyagorik
iñori ez diot ikusi,
orrek umerik egiten badu
eder bat neretzat azi.

Txapela orren materialak
izan biar du oso piña,
erregalotan emana omen da,
ez da beretzat egiña;
guk txiki xamar daukagun abek
orri sufritu eziña,
guraiziakin laurdenduta're
badu lau gizonen diña.

ERRAÑARI

Alza'ko Gazteluene baserriko Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illobak, onako berri auek idatzi dizkigu Andres Arrieta'z eta urrengo bertso-sallaz:

«Andres Marrus deitzen zitzaion, Marrus izeneko baserrian jaioa zalako; naiz gero ezkondata Garbera-goi baserrian bititu.

Gizon aundi ta gorputz ederreko bat zan. Ala kontu egin ere egiten zion bere buruari. Beragatik esaten zan jale edo apetitu aundikoa zala, baña txukun eta poliki-poliki jaten zuala.

Lanari etzion alako amorrurik; naia-go zuen lan egiñ baño beste edozer gauza. Orregatik, beti arlote xamar bizitu izan zan, alik eta bere seme bat etxera ezkondu zitzaion arte.

Argatik ainbeste saiatuko zan semeari andregaija billatzen, bai baizijuan urte-

tan aurrera, eta Andresek pentsatu zuan berak billatzea semeari andregaija eta beretzat erraña.

Bein batean ikusi du Txomiñene deitzen zaion ballarako taberna batean neskaxa bat serbitzen ari dala; asi da poliki-poliki izketan, eta antzeman dio ezkontzeko gogo pixkaren bat badaukala, eta esan dio aber nai duan aren semearekin ezkondu eta bere etxera etxekoandre jua; eta erantzun zion ezin zezake la esan, etzuela ezagutu ere egiten eta.

Orduan esan zion Andresek, jarri zezala aparti bat urrengo jai baterako bere seme Joxe Ramon eta aren lagunentzako, eta ura egiñaz ezagutuko zuela. Baita ere ondo artu neskaxak.

Orduan jarri ditu Andresek jakiñaren gañean bere semearen lagunak, esanaz aparti bat egin zezatela elkarrekin alako tabernetan, eta olako neskaxari erakutsi zezaiotela bere semea. Baita egin ere. Eta au guzia, bere semeak etzekiela zertarako zan.

Andik ondorengo egun batean jua zan Andres neskaxarengana, eta galdetu zion zer iduritu zitzaion bere semea; eta erantzun zion etziola beste faltarik billatzen zaar xamarra izatea baizik.

Ala ta ere, biak ezkondu ziran eta familia azi zuten, eta oso errañ maitea izan zuen Andresek.»

Erraña oni onako bertso auek jarri zizkion Andresek. Otxoki baserriko Patxi Lazkano'ren eskuz idatzitako kuaderno batetik kopiatuak ditugu:

- 1/ Bertso berriyak jartzera nua,
jendiak artu goguan,
memori ona izanagatik
bariatzen du buruan;
orren igualik ezta izango
beste ume bat munduan,
etxeko erreña ondratu biat
kondesa baten moduan.

- 2/ Alegri (y) ortan badet lagun bat,
izena Patxi Larrarte,
berrogei eta zazpi urtian
ez det ikusi gaur arte;
orren illoba neskatz eder bat
etxera ekarri nai nuke,
nere desiua ala litzake
baldiñ berak nai baluke.

3/ Maria ederra biyotzekua,
nere esan bat aditu,
uste det beintzat badaukagula
gauza ainbeste kreditu;
osasun ona eta lanian
talentu aundiyak ditu,
gure etxera juaten bazera
semiak maiteko zaitu.

4/ Aurreko aldian zu ikusita
zeiñ ez litake gustatzen?
eskol-umiak plazan bezela
asi litazke jostatzen;
zedorren gauza agindu eta
ezpadiyozu ukatzen,
aren faltarik izango danik
neri etzait iruritzen.

5/ Alegriyatik Alza'ko errira
neskatx eder bat propiyo,
gure etxerako txit ona da ta
beria aitortu biar zayo;
bajuan dagon dama gaztia
altura nai nuke iyo,
desgustorikan ez dezan izan
gaur ni naizela meriyo.

6/ Mundu guzian nere partetik
nai nuke adierazi
irurogei ta zazpi urtian
zer modutan naizen bizi; (1)
antziñakuak esan zutena
goguan artu lenbizi:
famili ederra aziagatik
geienak jua dira igasi.

7/ Guraso zarren alebiyua
zartuta ezin ikusiya,
ontaz aurrera artu biarko,
al badet, pazientziya;
orain etxian gelditzen danak
baidute konzienziya,
aita eta ama anparatzeko
berak al duten guziya.

8/ Gauz oiek orla aditutzia
guraso zarrarengandik,
nik ez det uste informe txarrik
etorri danik iñondik;
urte askuan ongi izatia
desiatutzen diyet nik,
esperantzetan bizi gerade
gure Jaungoikuagandik.

(1) Auek jartzerakoan irurogei ta zazpi urte baldin bazitun, 1856'gn. urtean jaioa zan ezkeru, bertso auek 1923'gn. urtekoak dira.

9/ Jose Erramun Arrieta da
Doña Maria Jauregi,
urte askuan ongi izatia
desio zaie biyeri;
aurreko aldian esango diyet
formalidades berari:
eguzkiyaren onduan dagon
izar eder bat diruri.

10/ Maria ederra biyotzekua,
gure erraña zu zera,
nere partetik utziko etzaitut,
al baldin badet, galtzera;
kariño onian saiatu zaitez
zarrak anparatutzera,
etxeko gauzak zuretzat dira
ongi portatzen bazera.

11/ Orain bezela ontaz aurrera
baldin bazera portatzen,
ni ere zerbait pentsamentuan
asi naiz konsideratzen;
famili danak maite zaitugu
ezpazerade muatzen,
osasun ona degun artian
batere ezkeru kejatzen.

SEGA-APOSTUA

Onako berri auek ere, Jose Ramon Erauskin Txirritaren illobak idatziak dira:

«Gure Andres Marrus, Frantzia'n ere izana zan lanean; basoan egur botatzen aritzen omen zan.

Gero, denborarekin, bere seme Luis ere Frantzia'ra joan zan, eta sega-apostu bat ere izan zuen, baña galdu egin zuen. Eta irabazleak bertso batzuek jarri zizkan, eta aietako bat auxe da:

Berrogei ta lau urte daukazkit,
ez naiz sobera bolanta,

.....

.....

txoko batetik deitu ziraden
egiteko parlamenta,
finitu gabe uzten zuela
irabazita emanta.

Andres bertso jartzen ere aritzen zan, eta ikusirik bere seme Luixi jarri zizkabela, pentsatu zuen bueltan ederrak jarri bear zirala, eta egun batean juan zan Txirritarengana, bertsoak jartzeko esanaz.

Baita jarri ere; baña nunbait ez zitzaizkan gustatuko Andresi, eta esan zuan aiek etzirala gauza iñori erakusteko, eta berak jarriko zituala aiek baño obeak, eta Txirritak jarri zituanak, basurara bota omen zituan; eta beia sokatik artu eta ari jan-erazteko aitzakian, papera ta lapitza patrikan zituala, sorora edo sagastira juan, beia sagarrari lotu, eta arbolaren aldaskaren gañean papera jarri eta bertsoak eskribitzen zituan.

Ez genituan beñere entzun izandu bertso oiek, eta ez det uste ere zabalduko ziranik, España'n beintzat.»

Onerañoako auek, Txirritaren illobaren itzak dira. Itz auengatik, eta leenago jarri ditugunakgatik, oar au egiten du bere idatziaren bukaeran Jose Ramon Erauskin onek:

«Ez nuke esango danak fedeko egiak diranik, baña nik aditu izandu ditudan bezela, ezertxo ere ez erantsi eta ez kendu gabe, ipiñi ditut.»

Txirritaren bertsoak, basurara boteak izan baitziran, ez ditugu inun arkitu, baina Andresenak ere ez. Bai, ordea, Bidasoa'z beste aldekoak jarri zituztenak, Jose Ramon Erauskin'ek emandako bertso orri eskerrak. Bertso-paper bat da, «*imp. R. Marquebielle, Hendaye.*»-n inprentatua, eta Ondarrabia'ko Fernando Artola *Bordari*'k emana.

Bertsoetan *hatxe* batzuk falta dirala arkituko du irakurleak. Guk bertso-pape-rean daudenak jarri ditugu. Ona emen bertsoak:

(1928)

BERTSO BERRIAK SEGARIAK

Airea: Balentin Berriotxo.

- 1/ Milla pasa ta beratzi ehun hogoi ta zortziko lana, desiratzen dut izan dadien letra aunditan emana; sega-pario orhoitgarria, publikatzera noana, pasa izan da Biriatu'ko mendi-bizkarrian barna.

1/5: pario = apustu.

- 2/ Buruz-bide hau pixtu duena hemen dugu Luix deitzen, kontra egingo zion gizonik eia herri ontan bazen; espantuekin aspertu dena gizon ttiki-apal bat zen, eztuk errexera puska aundia gizon ttikiari kentzen.

- 3/ Hiru bat urte pasatu ditu pario huni borroka, parrapi hautan dagon segari obena desafioka; hamar orenez hamar segakin milla franko nahiz joka, Ttonbo'tarretan gizonik baden froga egin daduka.

- 4/ Aspaldi ontan ixil-ixila barnia nuen negarrez, mingain beruen desafioa neurrian jarri beharrez; pariatu-ta nihoiz ez nuen sega zikindu belarrez, atsegin hortan parteliarra izandu zait, Piarres.

3/3: parrapi = parroki; 3/5: oren = ordu; hamar orenez = amar orduaz; 3/7: Thonbo = etxe baten izena, edo norbaiten izengoitia izango da; 3/8: froga = proba.

4/7: paterliarra = parte artu duana.

5/ Arras konten naiz afera hori
hola finitu denian,
oren batzuek nahiz pasatu
nik mementu illunian;
pario mina zerratu naute
gan den San Juan egunian,
Luixen kontra segan aitzeko
ondoko ortzegunian.

6/ Nere berririk gehiago gabe
zerratu naute jokua,
Lapaide jaunen sorho ederra
gure segako lekua;
Luix omen da nihoiz beruak
ikaratu gabekua,
arma onakin belar pikatzen
maxinaren parekua.

7/ Seinalatuko egun berian
sorhorat ginen abia,
hamar segakin ikusgarri zen
Luixen ferralleria;
horiek biltzeko pasa bide du
Biriatu'ren erdia,
oinbertze arma gizon bakarrak
ezin dezazke balia.

5/1: afera: asuntu; 5/2: finitu: bukatu.

6/5: nihoiz: iñoiz; 6/7: pikatzen: ebakitzen; maxi-
na: makina.

7/4: ferralleria: *cacharrería*.

8/ Zein alde hauta xortian bota
eta nion irabazi,
nere postara jua ta xutik
plantatu nintzen lenbizi;
sega zorroztu, xapela bota
ta zintzo lanian asi,
kanpotarrikan etzedin jarri
gure herrian nagusi.

9/ Kontrarioak bere aldetik
egin du entsaio franko:
gain-behera ta azpitik goiti,
trebeska eta birako;
bere denboran plana oberik
ez du sekulan tirako,
manejarentzat toki pollit bat
heldu den San Martineko.

10/ Batzuek pika, bertziak hautsi,
bertze batzuek tapatu,
segari onak ez luke behar
sorhua hola tratatu;
gero beruak jo zuenian
sasi-xokuan plantatu...
jende biziak ez manifesta
sekulan sobra espantu!

8/1: hauta: aukeratu; 8/3: postara: tokira.

9/4: birako: jirabuelta; 9/7: *manefa*: tío-vivo,
caballitos.

10/8: espantu: arronka.

11/ Berrogoi ta bi urte baditut,
ez naiz sobera bolanta,
bainan halere segitzen nuen,
etzen oraindik beranta;
sasi-xokotik deitu ninduen
egiteko parlamanta,
finitu gabe uzten zuela
irabazitzat emanta.

12/ Ezin ikusi naukela diok
gehiago hire begiz,
ez nitek penik nere partetik
faltarik izandu balitz;
len baino zazpi sega gehiago
emango dizkiat, Luix,
pario hori toki berian
jokatu nai baduk berriz.

13/ Lenago hunek irabazia
omen du zenbeit pario,
mordoxka ona baldin bazuen
ongi behartu zaizkio;
Biriatu'ko iñorantiak
eskolatzia kario,
zuzen-bidian Marianori
bere partia zor dio.

11/2: sobera: sopra, geiegi; bolanta: zalu, arin.

14/ Horra zer gauzak pasatu diren
Biriatu'ko kaskuan,
jende leiala entseiatzen da
galdutzeko irrixkuan;
desiratzen dut egon dadiela
oraindik urte askuan
segariaren bandera hori
herritarraren eskuan.

15/ Nere barnia trankildutzeko
erran ditut zenbeit egi,
gauza txarra da sartzen badire
sentimentuak barnegi;
nik pariotik badut askitxu,
nahi duzuenak segi,
Luixen kontra aritu dena
ni naiz Jose Suzperregi.

BERTSO BERRIAK

MARRUS'EK PAULINORI JARRIAK

1/ Milla bederatzi eun ogei ta zortzi
orain dijuan urtia,
bertso berriyak onak jartzeko
etorri zaigu partia,
nola Paulino Ameriketan
dagola mutill fuertia,
lenago gerra zegon lekuan
iya egin du pakia.

2/ Errezil'dikan etorri zaigu
mutill gazte bat propio,
dabilen toki danetan orri
Paulino deritzen zaio;
orren igualik mundu onetan
eztala besterik jaio,
Ameriketan portatutzen da,
beria aitor biar zaio.

3/ Europa'n gizon bakarrak
orrentzat etzun baliyo,
Amerika'ra argatik juan zan
frantzes bat zala meriyo;
bajuan zegon Paulino Uzkudun
orra alturano iyo,
onuzkero an bentzitu ditu
makiña bat kontrariyo.

4/ Errezildarra Paulino Uzkudun
orain Amerika'n bizi,
Europa ontan gogorragorik
ez degu inor ikusi;
kontrariua etorri arren
ezta juango igasi,
oraingo beltza bentzitzen badu
kanpeon danen nagusi.

5/ Bi milla duro Paulinok jarri
doblia beltzaren alde,
ori sinisten ez duten danak
Donostira juan da galde;
golpe aundiak eman alkarri,
ez dira izango debalde,
euskaldun batek estranjeriyan
negarra egin lezake.

6/ Anparatzalle askorik orrek
ez du izan probintzian,
Amerika'ra argatik juan zan
Paulino sartuta ontzian;
disgusto franko izanagatik
sufritu pazientzian,
bere aitatzat frantzes batekin
laister degu España'n.

7/ Adios bada, estranjeruak,
Afrika ta Amerika,
beltzak ez badu gaur jokatu nai
laister banua emendikan;
amaren semerikan azaltzen
baldin bada inundikan,
España'ra neri abisatu,
etorriko naiz andikan.

8/ Europa'n da Ameriketan
orlakorik ez degu ikusi,
Paulinok lenago asko zekien,
orain geiago ikasi;
estranjeritik España'ra
dator bandera ta guzi,
onoria ta premio on bat
ez al du onek merezi?

9/ Mundu guziko presidentiak
goguan artu bezaren:
lenago ere Erromatarrak
Errezill'en il ziraden;
denbora artan mutill pizkorrak
Euskal-errian ziraden,
orduko kastak bertan jaiua
Paulino Uzkudun emen.

10/ Erroma'tikan eun bat gizon
Errezill'ara etorri zian
panparroi asko peliatzera,
bizirik gutxik juan zian;
orduan ere mutill gogorrek
abarka-dunak bazian,
euskaldun otzak izanagatik
berotu ziran trantzian.

11/ Orduko kasta Paulino Uzkudun
patria defenditzeko,
nazio asko bentzitu ditu
ongi goguan artzeko;
prueba franko emandu orrek
ministruetan jartzeko,
enpeño on bat ez al dago onentzat
erregen urren jartzeko?

12/ Mundu guzia arritutzen du
Paulinoren baloriak
aitak eta amak emanak ditu
orren abillidadiak;
kontrariua ikusitzian
gorriturik koloriak,
oraindik eztu bestek bentzitu:
zeru ta lurren jabiak.

13/ «Mundu guzia markatutzen det,
jendiak franko badaki,
Donostia'ko plazaren erdira
iñork nai badu etorri;
kanpeon onik baldin bada iñun
orra aukera ederra jarri,
bi milla duro emango dizkat
ni bentzitzen nauenari.»

14/ Orra amalau bertso
iñork nai badu kantatu,
Altza'ko erriko gizon zar batek
gustora jarriak ditu;
Errezildarra Paulino Uzkudun,
talentu aundiyak ditu,
urte askotan nere partetik,
gaizki esanak barkatu. (1)

PATXIKO ARZAK
(1859-1928)

(1) Bertso-papera, "*Imp. Macazaga — Rente-
ría*" moldiztegiaren inprentatua, Oiartzun'go Arrasku-
-larre baserrian jaso.

PATXIKO ARZAK ARANA

Franzisko Arzak Arana bertsolaria, Alza'n jaio zan, 1859'gn. urteko Abenduaren 1'an.

Jaio zan baserriari, Amueder esaten dio erriak, bañan Amoreder ageri da paperetan.

Zizurkil'ko alaba zan Juana Kortajarena'rekin ezkondu zan.

Bertsolari onen bizitzaren berri Auspoa'ren 27'gn. zenbakian, 122'gn. orrialdean eman genduan, berak ere bertsoak jarri baitzitian Udarregiren alde, onen eta Pello Errotaren asarre-aldi mikatz artan. An arkituko du, beraz, irakurleak zer-nola bizi izan zan bertsolari au.

Guk dakigularik, iru bertso-paper jarri zituan: oietako bat, Udarregiren aldeko ori.

Bestea, Artzaka baserriko bere osaba-

ri jarria, ta liburu ontan, urrengo orrialdeetan, irakurleak oso-osorik arkituko duana.

Ta irugarrenetik, berriz, iru bertso besterik ez degu jaso al izan. Papera ez degu iñun arkitu.

Beste jarri-aldi geiago ere izango zuan noski, bañan gure ezaguerara iritxi diranak, iru oiek dira; besterik ez.

Ta zer esanik ez dago, aotik-aora, sagardotegietan, lagun-arteetan eta abar, bertso asko ta asko kantatuko zuala.

Donostia'ko Antigua'n egin zituan bere azkeneko urteak, eta 69 urterekin ilzan, 1928'gn. urteko Garagarrillaren 18'an, goizeko amarretan, *uremia* gaitzak jota. (1)

(1) Antigua'ko eliz-liburuetan, XI'garren eriotz-liburuan, 61'garren orri-aldean.

BERTSO BERRIAK

AITA ZAR BATEK JARRIAK

Patxikoren osaba bat, Prantxisko, Artzaka baserrian bizi zan. Bi etxeak, Amueder ta Artzaka, alkarren bistan daude, eju eginda aditzeko moduan.

Prantxiskok, zergatik ez dakigula, beia il ta zuloan sartu bear zuan. Lan ori egiteko, illobai deitu zien. Etorri ziran auek, eta beia tiraka zeramatera, soka autsi zuten, ta osabak soka kobratu egin zien illobai. Patxikok etzuan ori ontzat artu, ta bertsoak jarri zizkion osabari. Berri auek, Alza'ko Otxoki baserriko Inazio ta Patxi Lazkano anaiengandik jakin ditugu.

Bertsoak, berriz, «*Imp. y lit. de V. Iraola*»-n inprentatua dagoan eta Oxford'ko *Bodleian Library*'tik mikrofilmez eskuratua degun bertso-paper bategatik kopiatuak ditugu.

1/ Gaztetandikan ikasi nuben
kantu-laneko platikan,
deskuidatzia gauz erreza da
zerbait jakiñagatikan;
jolas-bide bat izandu degu
Altza'ko Artzaka'tikan,
Franzisko, kankak jartzera nua,
ez egiñ nere faltikan.

2/ Illobak artu omen dizute,
Franzisko, beia iltzeko,
zutikan eziñ egon zala ta
bertan larruba kentzeko;
sangratu eta esan omen du
kanpora ateratzeko...
orrelakuak bear dirade
moda berriya jartzeko.

3/ Bizirik etzan mugitzen eta
ilda nai zuben joatia,
ezagun da oraiñ zenbateraño
zedukan borondatia;
faborerikan ez du egin nai,
al baldin bada kaltia,
leku txarrian ibilliko da
orrekin inozentia.

4/ Kondiziyuak itzezin ziran
biar bezela salmentan,
amairu duro egin zituben
etxeke sotuan bertan;
aragi ori iñork nai badu
kilua iru pezetan,
biyar goizian jartzera nua
anunziyua gazetan.

5/ Jateko onik ematen ez da
txarra nai ezik lajia,
estomagua debilla zeukan,
tripatik zuben ajia;
munduban asko persegitutzen
zuben enfermedadia,
obe litzake orlako gaitzak (1)
atajatuko balia.

6/ Illiarekin tapatu zaizka
begiyak eta adarrak,
aurreko aldetik indarrik ez da
atziak oso baldarrak;
nork daki zenbat malamentian
egiñ dituben negarrak,
penik geiena ematen ziyon
mundu au utzi biarrak.

(1) Paperean *orrelako* dago.

- 7/ Iñork tiraka atera ez balu
an egongo zan oraindik,
buruba zeukan lurrian eta
ezin zabaldu begirik;
Europa'n ez da sekulan egiñ
korrida ederragorik,
pikadoriak ez dute izan
toriadore biarrik.
- 8/ Nere denboran etzat aztuko
orren salida kuadratik,
zeñek elduba etzuben falta
atzetik eta aurretik;
sokan artzeko esan ziguten
nagusiyaren partetik,
tiraka autsi gendubela ta
pagatu degu larrutik.
- 9/ Kuerda fiñ orrek izan biar du
belarra ero lastua,
buelua franko bazuben baño
materiala bastua;
orrekiñ ere eman diguzu
zortzi pezetan gastua, (2)
auzuan estimatu liteke (3)
orlako gizon prestua. (4)

(2) Paperean *pezetaren* dago.

(3) Paperean *estima* dago.

(4) Paperean *orrelako* dago.

- 10/ Motiborikan gabetandikan
ez gera inkomodatu,
mundu guziyak jakin dezala
nola geraden gertatu;
auzuak ondo ikusi baño
naiago luke urkatu,
orra illobak osabarekiñ
ederki eskarmentatu.
- 11/ Jose Migel da Marzial ziran,
Santiago eta Agustin,
labak illobak inkomodatu
osaba Franziskurekin;
Jose Leon da Luzio berriz,
Inazio zan arakin...
amak egiñik seme oberik
ez da izango beñipin.
- 12/ Errespetua guardatzen degu (5)
izanagatik gaztiak,
apenas geran persona zarra
gaizki tratatu zaliak;
bere buruba abiltzat dauka
tonto eginda bestiak,
zenbaiti orrela juaten zaizka
munduko egun tristiak.

(5) Paperean *guardatutzen* dago.

13/ Orgullua ta banidadiak
gizona askotan galtzen du,
gaztia dala okertzen bada
zartu eta eziñ zuzendu;
besteri burla egiteko ere
etzera txarra izandu,
obe zenuke zere etxera
begiratuko bazendu.

14/ Munduban danik gaitzik txarrena
iñor ezin ikusiya,
ene Franzisku, ala dijua
zure denbora guziya;
aiñ da amabilia desonratzeko
Jaungoikuaren graziya,
iruritzen zait ote zauden (6)
burutik oso jantziya.

15/ Zure moruko buru-gogorrak
lenago ere bazian, (7)
justubak baño kobardiago
eriyotzeko trantzian,
Jangoikuari barkaziyoka
errendituta jartzian...
ikusiko da nola geraden
denbora allegatzian.

(6) Paperean *iruitzen* dago.

(7) Paperean *baziran* dago.

16/ Usua egan bezela dator
munduko errematia,
nere anaia biyotzekuak,
utzi gorrotidadia;
orreatikan len ere dago
infernu dana betia,
komeni bada guarda gaitzatzu,
gure Jangoiko maitia!

«ALZA'KO ERRIYAN...»

Onako iru bertso auek, amalau edo amasei bertso zituan sail batekoak dira. Sail ori, Patxiko Amueder'ek jarria zan.

Bertso-paperak saltzen, Patxiko bera ta Ernani'ko Olegario ibilli ziran. Ortan ari zirala Txirritarekin zer gertatu zitzaien, onen liburuan irakur dezake irakurleak, Auspoa'ren 18-19'gn. zenbakian, 211'garren orri-aldean. Liburu ontan jarri-aldi ontako bertso bakarra ematen da, azkena; gaurkoan, berriz, iru: bi berri, ta bat lengoa, azkena. Bertso au, zenbait aldaketa-rekin ematen degu oraingoan.

Zoritxarrez, bertso-papera ez degu inun arkitu. Iru bertso auek, Otxoki baserriko Inazio ta Patxi Lazkano'k emanak ditugu.

1/ Alza'ko erriyan askok nai diyo
Garbera-goi'ko Andresi,
ogiya baño gizon obia,
gaitzik eztuna merezi;
aspalditxuan kantu-lanian
eztezu gutxi ikasi,
tamaña orretan laister zerade
bertsolariyen nagusi.

2/ Taberna eder bat or badaduka
Calle Matia'n Joakiñak,
esanak libre izaten dizkin
olako buru-ariñak;
oraindikan e artzen zetiñat
lengo erreziyo jakiñak,
bi baxo-erdi eskax badira
iru artuko zetiñat.

3/ Tabernan askok ikusten naute,
ez naiz sartuko botikan,
gizona ondo gobernatzeko
beneno gutxi autikan;
Gipuzku ontan ez dedilla izan
umoriaren faltikan,
amalau bertso artu litezke
amar xentimogatikan.

XATURDINO ERAUSKIN
(1874-1950)

SATURNINO ERAUSKIN
(1874-1950)

Bertsolari onetzaz emen jarri diran itz guziak, azkeneko bertso bat izan ezik, beraren illoba dan Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k idatziak dira. Onen aita ta bertsolari au, anaiak ziran.

Txirrita ere, Jose Ramon onen osaba zan; beraren ama ta Txirrita, anai-arrebak.

Saturnino, bere jaiot-etxean, Alza'ko Gazteluene'n bizi zan; Txirrita, berriz, etxe ontara bildu zan bere azkeneko urteak pasatzeko. Etxe batean bi bertsolari, beraz.

«Xaturdino, 1874'ngo Maiatzaren 21'an Alza'ko Gazteluene'n jaio zan. Orrengatik, Gaxtelu deitzen zioten, bere anaiari bezela.

Entzun izan dedanez, Pasai San Juan' en bataiatua omen zan. (1)

Bere denboran oso gizon ona ta zuzena izandu zan. Pasai'ko portuan ibiltzen zan arotz-lanian, osasunak lagundu zion artean.

Etzan ezkondu, bañan bere illoba eta illoba etziran askoren aita-jauna izan zan. Oso maitea eta ixtimatua izan zan beti bere illoba guziakgandik.

Bertsotako apizio aundia izan zuan, eta oso ederki egiten zuan, bada jendea oso gustora edukitzen zekien, bertsoan ari zanean.

Urte askoan Txirrita eta biak elkarrekin bizitu ziran, eta askotan aritzen ziran kantari, eta len jakin ez balu ere, arek geiago erakutsiko ziola uste degu.

Oraindik gogoratzen dira bere illobak Eguberri-jai batzuetan zer saio ederra egin zuten. Lenbizi Txirrita aspertu zan, eta ala ere Xaturdinok kantatzen segitzen zion; eta Txirrita, oiera zijoala, eskalletatik jira ta onela bukatzen zan bertso au kantatu zion:

(1) Ez Alza'n beintzat. Emengo bataio-agiri-liburuak dionez, gerragatik eliza Gobernua bere soldaduentzat artua zegoan, eta 1873'gn. urtetik 1876'gn. urteraño etzan Alza'ko parrokian bataiorik izan. Aurak auzoko errietara eramango zituzten.

...auxen da lana, au:
neronek erakutsi ta
menderatuko nau!

Etzan ibiltzen erriz-erri festetan kantatzen, baña ala ere bein edo bein Txirritarekin jua izan zan, onek eramana-azita; bañan naiago izaten zuen bere lanean jarraitu, bertsoetako ibilliari utzita.

Bertsoak jartzen etzan aritzen, bañan ez etzekielako. Txirritarengana bertso jartzera etortzen zanari, bazekien tartean politak jartzen, naiz gero Txirritak jarriak bezela eramana.

Onela, bein batean, Errenteri'ko gizon bat obran erori ta min artu zuen; eta etzutela ondo sendatu, eta bertsoak jartzera etorri zan; eta aietako bi bertso, gutxienez, Xaturdinok jarriak dira. Auek dira:

Frontala altxatzen ari giñala
aldamiyotik jausita,
penagarriya gelditu nitzan
espalda-ezurra ausita;
mediku bati egin dizkiyot
makiñatxo bat bisita,
ez ote naizen ondo jarriko
geldituba naiz etsita.

Baten biotza lertu liteke
ez baldin bada arriya,
itzegin nai ta itzegin ezin,
auxe da nere larriya!
espalda autsita aldrebes daukat
mediku batek jarriya,
orain osteria egin biarra
operaziyo berriya,
oiek danak nik sufritu biar,
au mundu penagarriya!

Fermin Imaz ta Txirritak, asarretu ta
elkarri bertsoak jarri zizkiotenean ere,
Imaz'i jarri zionetako politenetako bat
ere Xaturdinok jarria zan:

Errenteriya'n ziñan
kantari azaldu,
nere kontra paperak
ziñuen saldu;
beste batzuek berriz
mozkortuta galdu,
aldrebestasunian
oi zeñek igualdu?
memoriya auldu,
izketa moteldu,
neri artzen kargu,
lotsarik bai al du?
motibuak badauka
nundikan eldu! (2)

(2) Imaz ta Txirritaren asarre-aldi ontako bertso guziak, Auspoa'ren 24'garren zenbakian arkituko ditu irakurleak.

Etxean sagardoa zegoen batean, Erna-
ni'ko Olegario bertsolaria etorri zan bes-
te gabe Xaturnino ta Txirritarekin ber-
tsotan aritzearren. Illunabar guzia kanta-
ri pasa eta oeratu ziran.

Urrengo goizean, aiek lo zeudela, lane-
ra joan bear izan zuen Xaturdinok, eta
eguardian bazkariarekin joan zan illoba,
eta berarekin bertso au bialdu zioten goi-
zean lotan utzi zituen bertsolariai; lenda-
bizi illobari erakutsi, gero illobak aitari
erakutsi, eta onek Olegario ta Txirritari
kantatzeko:

Lanera etorri naiz
erdi negarrian,
lagunak lo utzita
patxara ederrian;
Txirrita ta Olegario
daude indarrian,
allegatuko dira
leku biarrian,
nik konponduko ditut
illunabarrian!

Beste jai batean, Xaturdino ikusi zuen
Txirritak triku bat larrutzen ari zala, eta
galdetu zion:

—Zer pasa zaio orri, Xaturdino?

Eta onek onako bertso onekin erantzun
zion:

Juan dan astian goiz alde batez
etxe azpiko lintzuan,
zakurra zaunkaz ari zan eta
juan nitzan aber zein zuan;
triku triste bat zeukan mendian,
gizaraxuak min zuan,
txapelan artu, etxera ekarri
ta gero zer egin zuan?
tapaki txarra jarri nion ta
gabian otzak il zuan.

Beraz, bertso gutxi dakizkigu berak
kantatu eta jarriak, baña sagardotegira
edo lagun-artera juaten zanean, bertso po-
lit asko ta asko kantatzen zituan. Argatik
jendea ainbeste saiatzen zan bera kantari
jarri-erazten.

Oraindik zaartu baño len, gaitz triste eta
luze batek arrapatu zuen, eta lanera joa-
teari utzi egin bear izan zion, eta andik
aurrera etxean baserri-lanean aritu zan,
bere gaitza pazientzi aundi batekin era-
manaz; eta bere umore ona ala ere etzuen
galdu.

Gero, azken aldera, zaartu zanean, asko-
tan egon izan zan miñez, eta bi edo iru
aldiz elizakoak egin zituen, oso elizkoia
eta fedetsua baitzan.

Atzeneko artu zituenean, apaizak, extre-
maunzioa eta beste otoitzak egin ondoren,
onela esan zion gaxoari:

—Xaturdino, zerura joaten zeranean,
neretzat erregutu!

Ta Xaturdinok onela erantzun zion:

—Al baldin badet, bai!

Eta apaiza andik atera eta irureun
bat metro bidean joan zanerako, bere ani-
ma Jaungoikoaren eskuetan utzi zuen,
1950'garreneko Agostuaren 28'an, arratsal-
deko lau ta erdietan, irurogei ta amasei
urte zituala, Alza'ko Gazteluene'n, Txirri-
ta il zan etxe berean.» (3)

* * *

San Inazio egun batean, topo egin omen
zuten alkarrekin, Alza'ko Irazuene-goi ba-
serriaren atarian, Xaturdino ta Saiburu
bertsolariak. Lenengo onek kantatu omen
zuen bertsoa, ta Xaturdinok onela eran-
tzun omen zion:

Irurogei ta amasei urte
ni jaio nitzala,
geroztikan egin det
munduan itzala;
banekien betiko
etorri ez nitzala,
Aingeru Guardakuak
guardatu gaitzala!

(3) Oneraño Xaturdinoren illobak idatzitakoa.
Ondoren jarri degun bertsoa, Irazuene-goi baserriko
Manuel Sarriegi'ri jasoa da.

ARTZAI-TXIKIYA

ARTZAI-TXIKIYA

«Jose Manuel zuen izena. Ez dakit zergatik, bañan Artzai-Txikiya deitzen zioten. Nongoa zan ere, ez det beñere entzun izandu. Bakarrik dakit Alza'ko Txurdiñe-ne'n bizi izan zala. (1)

Bertsolari azkarra eta xuxena izan bear zuen, eta beregandik dabilzkigun bertsoak ere, ala erakusten digute.

Bertsolari askok bezela, lanerako gogo gutxi izan bear zuen; naiago izaten zuen kantari edo jokuan ari.

Txirritaren oso laguna zan. Bañan bein batean Artzai-Txikiya bertsoara deitu zuten, eta onek etzion Txirritari ezer abixatu. Andik laister, Txirrita boda batera dei-

(1) Argibide auek danak, besterik abisatu arte, Txirritaren illoba dan Jose Ramon Erauskin'ek idatzia dira.

tu zuten kantatzera, ta Artzaia ere badi-
rudi pozik joango zana gelditu zala, zer-
gatik urrena ikusi zuenean, bertso au bo-
ta omen zion Txirritari:

Tripa-zakua bete bear du
gaztiak bere bolaran,
kaso geiago neri egin gabe
ez dakit nora jona dan;
besteren bizkarretik jatia
oi zeñen gauza ona dan!
soldata ederrak etxera ditu
bartarratseko jornadan!

Ta Txirritak onela erantzun zion:

Ollo erria mayian sobre,
ura ardozko asia!
jan-edanian izandu degu
nobiyuaren klasia;
aizu, tokaio, ez nuen uste
oinbestez kargu artzia,
baña aurriak erakusten du
nola dantzatu atzia. (2)

Txirritak askotan esaten zion «Ardi ga-
beko artzaia»; ta egun batean bertso au
kantatu zion:

(2) Bi bertso auek, eta urrengo biak ere bai,
Txirritaren liburuan argitaratu ziran; bañan oraingo
ontan diferentetxo daude.

Artzai Txikiyak eman biaizkit
lau bat arrazoi fuertiak:
ire ardiyak nere soruan
eiten dituzten kaltiak,
iru lau aldiz eman zizkatek
punta berriyai kortiak...
itxiko dizkat zelaiko langak
eta zelaiko atiak!

Ta Artzaiak onela erantzun zion:

Joxe Manuel, emango'izkizut
lau bat arrazoi klaruak,
gauz ori zuri xinistekotan
biarko dute txoruak;
eztakit nundik sortu dituzun
zuk orrelako moduak,
nik artaldiak bezela ditu
Txirritak ere soruak.

Beste batean, Artzai-Txikiyaren aitagi-
arrebaren etxean ari omen ziran apaltzen
Txirrita ta biak. Artzaiaren aitagi-
arrebaren Kokotz deitzen zioten.

Bapo jan zutenean, asi omen ziran kan-
tari, eta orduan esan bear Txirritak ardi-
rik etzuela, ta bertso onekin erantzun
omen zion Artzaiak, bere aitagi-
arrebaren aurrean:

Goizeko labak jo ordurako
ateratzen dek etxetik,
ardiyak eta mendiyak onek
maite dizkik biotzetik;
nik ardirikan ez diat baña
Kokotz guriak bazetik,
atera gabe ortxen zebillek
beti berien atzetik.

Orduan Kokotzek eskuarekin maia jo
omen zuen, onela esanaz:

—Alper pobriak sekula atarramentu
onik atera ez, eta aterako ez!

Jokurako apiziyo aundia omen zuen, ba-
ña geienez galdu egiten omen zuen, eta
zituan diruak galtzen zituanean, «Asko
diat!» esan eta gelditzen omen zan.

Bere andrea agiñ ateratzen aritzen zana
omen zan, eta jokuan galdu eta xoxik ga-
be gelditzen zanean, askotan esaten omen
zuen:

—Gure Jainkoak emango al zioke bat
edo bati agiñeko miña!

Nonbait andreak dirua irabazi zai ego-
ten zan jokora joateko.

Bestek puntua asi ta osatzen ere oso
azkarra omen zan. Orrengatik, bein ba-
tean, jokuan danak galduta zegoan batean,
Txirritak onako puntu au esan zion:

Zakurraren putza edo
ogei milla ezkutu
zuk zer nai zendituke
eskuan estutu?

Eta asnasia artzeko beta gabe, onela
erantzun zion Artzaiak:

Ekarri itzatzu neri
ogei milla ezkutu,
eta zakurraren putza
naizun aña estutu!

Puntuak erantzuten orren azkarra zala
ikusirik, ala esan omen zuen gizon zar
batek:

—Nik jarriko nioke orratik asmatuko
eztuan puntua!

—Jarri akiok, bada! —esan zioten bes-
teak.

Eta onela jarri zion:

—Nere andre Mariñaxik bazeukak ollo
lokoa sokarekin eskallerari lotua anke-
tik...

Ta Artzaiak onela erantzun zion:

—Arroltzaren partez egingo dik ziriña
gogotik!

Beste batean, Txoritokieta'ko ondoko

baserri batean sagardotegian zeudela, Donostiar batzuekin kantari ari zan eta asarretu egin zitzaioten, ta onela bukatzen dan bertso au bota zioten Artzaiak:

Bein ondo xamar eltzen baditek
Artzai-Txikien tenaxak,
purrakatu ta puskatu arte
apartatuko enatxak!

Eta etxera Donostiarrak abiatu zira-
nean, ala esan zioten Artzaiak atzetik:

—Juan ai, juan ai! Ni ateratzen banaiz
bidera, kenduko dizkit sudurretako mu-
kiak!

Lanerako gogo gutxi nola baitzuan eta
gañera jokalaria, askotan gertatuko zan
diru faltan, eta bein batean auzora joan
zan bost duroren billa. Baña, nolana ere,
denbora aietan diru asko izango zan bost
duro, auzoan ere izan ez eta eman ez.

Baña Artzaiak etzuen xinixtu etzutenik,
eta bengantzaz bere sorotik ibiltzen ziran
langa edo ataka itxi zioten.» (2)

* * *

(2) Onerañokoak, Txirritaren illobak idatziak.

Or goien jarri dan bertso erdi bat, osorik
ere jaso izan det, beste onela ordea:

Motell, zertako dituk
orrelako xaltxak?
berotzen baldin banaiz
itxasiko natxak!
zer dirala uste dek
Artzaian tenaxak?
larrurik gorputzian
geldituko etzak,
izketa zikiñ ori
bestela muda zak!

Bertso au eman digunak, Ernani'ko Ere-
ñozu ballarako Jose Oyarbide'k, Artzai-
-Txikiya Tximistane baserrian jaioa zala
esan digu. Baserri au, Ernani'ko Latze ba-
llaratik goraxeago dago, kamioaren on-
doan, Goizueta aldera goazela. Oraindik
ere segitzen du baserri orrek.

* * *

Bein batean, Donostia'n eztabaida sor-
tu omen zan, zein ote zan bertsolari ohea:
Txirrita ala Artzai-Txikiya. Bosna juez ja-
rri omen zituzten, ta Astigarraga'ko Tabla
baserrian bildu omen ziran, emen sagar-

dotegia baitzan. Egin zuten bertso-saioa, ta Artzai-Txikiya juzgatu omen zuten obe-tzat.

Andik denbora-puska batera, Artzai-Txi-kiyak Asteasu'ra joan da Pello Errota ta Txirritarekin topo egin omen zuan, ta ber-tso au bota omen zien:

Ni oiekin kantuan
jardun izandu naiz,
gaur ez naute tentatzen
lenago bezin maiz;
oiek uzkaltze'ituen
mutikua ni naiz,
berriz e pixkat fiya
gogoz asten banaiz! (3)

* * *

Urrengo bertsoa Artzai-Txikiyaren ber-tsoetan jartzen badegu ere, ez da gauza se-gurua berarena izatea. Badira Pello Erro-tarena, edo Xenpelarrena dala diotenak. Bañan Artzaiarena izateko itxura geiago dualakoan, emen jarri degu. Oso bertso ezaguna da Euskalerra guzian.

Gau batean, Artzai-Txikiya mozkortu ta

(3) Emani-Txikiya bertsolaria, Emani.

bestek bizkarrean artuta ekarri bear izan omen zuten etxera. Atea itxirik zegoan ordea, ta orduan Artzaiak bertso au bota omen zion bere andreari:

Amaika t'erdik dira,
oraindikan goiz-ta,
jeniyo txarrak uzten
izugarri gaitz-ta;
kaballero moduan
ibillia naiz ta,
atea iriki zazu
nere andre maixtra!

Kaballero moduan ibillia zala, bestek aidean ekarri zutelako esan zuan.

Beste batzuek onela ematen dute ber-tsoaren bukaera:

atia iriki zazu,
nere andre maixtra,
urrenguan goizago
etorriko naiz ta.

Ta Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak Asteasu'n jaso zuanez, andrearen erantzuna ere bertsoetan izan omen zan:

Orain al zatoz bada
zere desordenaz?
jokuan diru dana
galdutako penaz?
nik ere asko ez det,
zuk ere apenas,
konbidatuko zaitut
txanpontxo batenaz!

* * *

Alza'ko Mirazune baserrian sagardoa
saltzen zegoan batean, Artzai-Txikiyak be-
re etxeko nagusia topo egin omen zuan,
eta ez omen zuan bertsorik bota nai. Or-
duan Patxiko Amueder'ek atrebitu-azi
omen zuan, bertso au botiaz:

Zarragoen esana
baita egiñ ere,
dakidala etzaitut
ikusi beñ ere,
sekulan bezin sasoi
daukazu oraiñ ere,
artzai bertsolariak
baziran len ere.

Ta Artzai-Txikiyak onela erantzun omen
zion:

Ondo billatu nazu
ikullu-zokua,
.....
.....
artzaia zan Fernando
Amezketakua,
aik bazituzten bañan
ni naiz gabekua.

Ardirik etzuala, alegia. (4)

* * *

1897'gn. urtean, Oiartzun'go euskal fes-
tetan, bertsolari-sariketa bikaña egin zan.
Amar bertsolari auek izan ziran: Pello
Errota, bere anaia Juan Kruz; Esteban
Elola, Asteasuarra; Txirrita; Saiburu;
Lexo; Joakin Urbietta, Oiartzuarra; ta Ar-
tzaia, Alza'koa. Artzai-Txikiya, alegia.

Epai-maiean, beste zenbaiten artean, Pe-
dro Maria Otaño zan.

Lenengo saria, biak berdiñean gelditzen
zirala. Pello Errota ta Txirritak jaso zu-
ten. Urrena Saiburu gelditu zan.

Ergibide auek, *Euskal-Erria* errebista-
tik artuak ditugu. Bañan, zori txarrez.

(4) Manuel Sarriegi, Irazuene-goï, Alza.

emen ere ez da Artzai-Txikiyaren izen-deiturarik esaten. Ta ala, bertsolari onen jaio ta eriotz-eguna billatu eziñik uzten gaitu, nundik lan orretan asi ez dakigula.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: SAGARDAOREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. M. Soroa: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. Pepe Artola: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. P.M. Urruzuno: EUSKALERRITIK ZERURA. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: RAMUNTZO (*Aitua*).
7. R. Azkarate: GALTZAUNDI (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: PATXIKO TXERREN.
9. B. Iraola: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. P. Larzabal: BODAXURI (*Aitua*).
12. Bilintx: BERTSO TA LAN GUZIAK. (*Aitua*).
13. M. Izeta: DIRUA GALGARRI. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. A. M.^a Zabala: GABON GAU BAT.
17. A. M.^a Labayen: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. A. Zavala: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. F. Goñi: LURDESKO GERTAERAL.
21. P. Larzabal: HERRIKO BOZAK.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. F. Imaz: BERTSO GUZIAK.
25. A.P. Iturriaga: JOLASAK.
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. B. A. Moguel: IPUI ONAK.
29. T. Alzaga: BURRUNTZIYA.
30. G. Anduaga: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. M. Soroa: BARATZAN.
32. M. Elicegui, A. Zavala: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. M. Elicegui, A. Zavala: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.

34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverria*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARI-TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala*: PELLO ERROTAREN ITZALA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BIDUMA.
54. *A. Zavala*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zabalas* AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: GAZTELU BERTSOLARIA.
62. *A. Zavala*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA.
- 63-64. *A. Zavala*: JUAN ETA PELLO ZABALETA BERTSOLARIAK.
65. *J.M. Satrústegui*: LUZAIDE'KO KANTIAK.
66. *A. Zavala*: IRU BERTSOLARI.
67. BERTSOLARI TXAPELKETA (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: ALZO'KO IMAZ BERTSOLARIA.
- 71-72. *A. Iturriaga*: IPUIAK.
73. *A. Zavala*: IRU ANAI BERTSOLARI.
- 74-75. *A. Zavala*: ERRENTERIA'KO BERTSOLARI ZAARRAK.
76. *A. Zavala*: ALZA'KO BERTSOLARI ZAARRAK.